

Kalipornian dauko barrija

Lekeitio
mendebaldera joan zen

Koldo San Sebastián
Itzulpena: Josu Erkiaga

... barrija
Kalipornian dauko barrija, barrija
Kalipornian dauko barrija, barrija
Lorentzo begi zurija



J. Diaz Sant...



Lemhi

Ignacio Izagirre eta Josefa Goikoetxearen hamar seme-alabetako gazteena izan zen Lorenzo (sei bakarrik bizi izan ziren). “Kalifornia”ra joan zen, anaia nagusietako bien moduan, Marcelino eta Tomas. Marcelino, nagusia, 1906an heldu zen, Matias, Bruno eta Juan Izagirre lehengusuen ondoren. Anaia Andresen agiriak erabilita irten zen herrialdetik Lorenzo, soldadutzara ez joatearren. Herriko beste batekin egin zuen bidaia: Leandro Ruiz “Talaiero”. Artzain-lanetan ibili zen *Mainfield Company*-rako Lemhi konterrian, Idahon, anaia Marcelinok ziharduen enpresa berean. Konterria 11.000 kilometro karratuko lur itzela da, Boise-ren iparrekialdean dagoena, landa amaigabeak zaintzen dituztela diruditen mendiz inguratua. Salmon ibaiak zeharkatzen du, eta bertan bizi ziren zenbait euskal artzain nahiz meatzariren batzuk, baita *lemhi* indiarrek ere, *shoshone* tribukoak. Zerk eragin zuen mutil hark Bizkaiko kostaldeko herri batetik Mendebalde amerikarreko zelai handi ere handietara emigratzea?

Lorenzo joan zenean, Lekeitioko ekonomian nagusi ziren itsasoarekin zerikusia zuten jarduerak eta, batez ere, arrantza. Hari zego-kionez, familia guztia zen itsas merkataritzakoa edo arrantzalea. 1855ean, 500 gizon inguruk ziharduten herriko itsasontzietan¹. Kontserba-

industria modernoa ezarri arte, atun- eta bisigu-eskabetxeak esportatzen ziren hemendik, Arrantzaleen Kofradiaren menpeko Eskabetxe Etxea zeritzonean prestatuak. 1865ean, eskabetxetegi Garavilla kontserba-fabrika gehitu zitzairen eta horiek, kontserbategi italiarrekin batera, arrainari irtenbide industrialia emango zioten². Hori guztia Learen itsasadarrean zeuden ontziolak alde batera utzi gabe³.

Ameriketara

1883 eta 1924 bitartean, 900 lekeitiar inguruk emigratu zuten Estatu Batuetara (gehienek, Mendebaldera); gizonetzkoak, emakumezkoak zein umeak ziren, ia denak identifikatuak. Kopuru hori harrigarria da; izan ere, kontuan hartu behar da hiribilduan 3.736 lagun bizi zirela 1877an eta 4.127, 1930ean. Beraz, berrogei urtean eta herrialde bakarrera joandakoen kopuruak gairiditu egiten du aurreko eta ondorengo emigrazio guztia.

Zer gertatu ote zen bat-batean Lekeitioko emigranteak “Kalifornia”ra joateko? Agustín “Gus” Azkuenagak, bere emazte Maria Urkizak lagunduta (Lekeition jaioa), arrazoa zein

izan zen gogorarazi zion Edward Miller-i, *The Sunday Oregonian*-eko kazetaria bera, 1933an Jordan Valleyko dendaren atarian elkarrizketatu zituenean. Gusen arabera, 1869 inguruan, Natxituan jaiotako kapitain bat San Frantziskon zegoen eta Nevadak eskaintzen zituen aukeren berri izan zuen; Winnemucarako tren hartu eta geratzea erabaki zuen: “Kapitaina dirutza handia egiteko beste denbora egon zen Winnemucan. Orduan, Euskal Herrira itzuli eta ezin hobeto hitz egin zuen ardi-industriaz: diru asko irabaz zitekeela artzain-lanetan edo bakoitzak artaldea erosita (...) Nahikoa izan zen haren berba. Hasieran, euskaldun gutxik egin zuten hain bidaia luzea. Gero, gehiago eta gehiago etorri ziren” (*Sunday Oregonian*, 1933-05-28).

Douglassek eta Bilboak nabarmentzen dutenez, “bizkaitarrak izan ziren nagusi; beraz, Nevada iparraldeko, Oregon ekialdeko eta Idaho hegoaldeko euskal kolonia ia beraiek bakarrik osatu zuten. Baliteke euskaldun bizkaitarrek Iparraldeko eta Nafarroako euskaldunek baino interes handiagoa izatea garatu gabeko gunetara joateko, Mendebalde amerikarrera nahiko berandu heldutakoak ziren-eta; azken hauek seguruenik Kalifornian bizi ziren senideak izango zituzten babesa emateko eta diruz laguntzeko”⁴.

² Amaia Apraiz, “Kabanak”, *Kurik*2, Lekeitio, 2016ko uda, 50-65 orr.

³ Luis Javier Escudero Domínguez, “El astillero Mendieta de Lekeitio, singular exponente de la carpintería de ribera del Cantábrico”, *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 6, Untzi Museo-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2009, 237-268 orr.

¹ J.M. Ugartechea/C.Crespo, “De la pesca tradicional en Lekeitio”, *Lekeitio* 2: 1990, 117-118 orr.

⁴ William A. Douglass/Jon Bilbao, Amerikanuak. Los vascos en el Nuevo Mundo, Bilbo (1986): Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 302. orr.



Emigranteak (M. Flores Kaperotxipiren marrazkia)

“Kalipornia”ra joateko bidaia prestatzen

Orduko herritarren artean, “Kalipornia” eta Estatu Batuak bat ziren eta, unerren batean, herrialde hartako hiriburutzat Boise hartzen zuten, Washingtonen ordez. Kalifornia emigranteak hartzeko lekua zela agertzen da Espainiako administrazioaren agiri ofizial, arau eta ebazpenetan ere. Julio Lazurtegi “emigratio-ikuskatzaileak” ere zentzu berean aipatzen du Kalifornia.

Lekeitio antzinatik zen Aulestiko ibarreko eta inguruetako “bitartekari” eta emigratio-agenteen jarduera-guneetako bat. Gainera, horiek harremanetan zeuden Gernikako, Bilboko eta Bordeleko edo Pariseko beste ordezkari batzuekin. Lan-esparrua Bedaronaraino eta Gipuzkoako beste herri batzuetaraino heltzen zen, baina, batez ere, Munitibarrera, Aulestira, Gizaburuagara, Ispastererra, Mendexara eta Lekeitiora bertora. Emigratioarena benetako negozio bihurtu zen berriro, kate horretan parte hartzen zutenentzat.

Mendearen aldamen-urteetan (XIX.etik XX.era), Manuel Garavillaren, Manuela Lopezegiren (Narea kalea) edo Ageda Astegiaren (*Marina kafetegia*) saltegitan, koadroak eskegitzen zituzten, Prudencio Clemençót-en Liverpooleko agentziaren eskaintzak eza-gutzeko, portu ingeles horretatik Estatu Batuetarako bidaiak kudeatzen zituen-eta. Clemençót, Elantxoben jaioa, *White Star Line* itsas

konpainiaren ordezkaria zen, eta jarduerarik handienak XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran izan zituen (1906ra arte). Kubako gerraren azken uneetan gertatutako emigrante batzuen deportazioak laguntza-sistema hobetzea eragin zuen, eta horixe bera erabali zuten beste batzuek ere, besteak beste, Valentin Agirrek.

Clemençotek harreman-sarea antolatu zuen, bezeroen bidaia babesteko balio izango zuena. New Yorken Natxituako Jose Atxabal zegoen, Cherry Streeteko 108an gelak alokatzen zituen jatetxea zeukana, baita Gregorio Beobide ere, Elantxobeko itsasgizona, emazte Romualda Izagirrerekin batera kale bereko 91n ostatu baten jabe zena. Mendebaldekoak Jose Mendiola eta Juan Iribar (Boise), Martin Etxabe (Willow Creek, Nevada) eta Bartolome Arratibel (Carson City, Nevada) ziren. Geroago, 1909tik aurrera, Valentin Agirre egongo zen New Yorken.



White Star Line itsas konpainia

Clemençotek antolaturiko bidaien batez besteko prezioa 6 libera eta 5 txelinekoa zen, itsasontziari zegokionez; horrez gain, 13 libera, 11 txelin eta 11 penike ordaindu behar zizutuzten Winnemuccara eta Renora zihozanek; azkenik, 10 libera, 18 txelin eta 9 penike balio



Marinelak Sarriaren agentziaren aurretik pasatzen



zuen Boiserako trenak. Itsasontzian bigarren mailan egindako bidaia ordaintzeko, 10 libera behar ziren. Bidaiariarentzat alde ona zuen bigarren mailan joateak: Ellis Islanden barik (han gogorragoak ziren), itsasontzian bertan pasatzen zuten emigratio-kontrola⁵.

1907an, Lekeitioko emigratio-agente batek, Zuñigak, Bruno Larrazabal alkatearengana jo zuen, Nicasio Sarriaren jarduerak salatze-ko, “bitartekari-sasilanak” egiten zebilen-eta; izan ere, ezin zuen horrelakorik egin, udal-funtzionarioa zelako eta lege espainiarrak zerbitzari publikoei bereziki debekatzen zizkielako jarduera-mota horiek. Gainera, azaltzen zuen berak zergak ordaintzen zituela jarduera gartzeko eta Sarriak ez. Gobernadore zibilarenganaino heldu zen Zuñiga, eta hark funtzionario lanik gabe utzi zuen. Orduan, Sarriak “itsas agentzia” ireki zuen, azuia erabaki bitartean. Lekeitioko Udal Artxibategian espedientearen zati bat dago: oso interesgarria eta zehatza da Nicasio Sarriaren deskargua, prezioei, agenteei, itsas konpainiei, emigranteen jatorrizko herriei... buruzko mota guztietako informazioa ematen duelako.

⁵ Prudencio Clemençóten erregistroa, Liverpool

Bidaia berrien eskaria handitzeak agente batzuen diruzalekeria sortu zuen eta prezioen gerra eragin Lekeition, Etxebarrietak, beste agente batekin ados jarrita (Iglesias), tarifak berehala igotzea erabaki zuenean, baita eskatutako kopurua ordainduta zutenei ere. Sarriak honela azaldu zion alkateari: “Etxebarrietak etxera deitu eta Konpainiek prezioak igo zituztela esan zidan; berarekin joan behar nuela Aulestira, hango 25 edo 30 bidaiariei jakinaraztera. Ez nuen ezer egin, lotsa ematen zidan-eta”. 300 pezeta gehiago ordaintzea nahi zuten (dirutza itzela emigrante txiro haientzat).

Bestalde, alkateari egindako gutunean Sarriak aipatzen zuen argitaratutako prezioek legezko emigranteentzat bakarrik balio zutela. Jakina, agenteek “legez kanpoko emigranteak” nahi zituzten, diru gehiago irabazteko.

Lekeitiotik Donostiara	5 pta.
Donostiatik Hendaiara	1,25 pta.
Hendaiatik Bordelera	11 libera
Bordeletik Le Havrera	33,55 libera
Le Havretik New Yorkera	170 libera
New Yorketik Kaliforniara	247 libera
Ostatuak	15 libera

Bazirudien emigratio-agenteen arteko liskarrek ez zutela akaburik. 1913ko urtarrilaren 17an, Julio Lazurtegi emigratio-agentek (Bilbon zuen egoitza) idatzi hau bidali zion Lekeitioko alkateari:

“Kaliforniarako emigratioa egiteko sasoi hurbil egonik eta nire ardurapeko Ikuskatzailetza honek jakinik emigratzeko jendea lortzen iruzurrez diharduten hainbat eta hainbat sasi-bitartekari daudela (tartean, Nicasio Sarria), eskatzen diot berorri, 1912ko Errege Agindua kontuan izanda, behar diren neurriak har ditzala sasi-bitartekari guztiak zaintzeko, batez ere, goian aipatutakoa, eta nire esku jar ditzala jarduera horretan ari direnak, dagokien Epaitegira eramateko”.

Sarria auzipetu egin zuten “legez kanpoko emigratio-errekruta” egitea salatuta. Markinako epaitegiak Udalari eskatu zion udal-funtzionarioaren soldata enbarga ziezaiotela, epaiketaren kostuei aurre egiteko. Urteetan

auzitan ibili ondoren, 1920an Bilboko entzutegiak absolutu egin zuen eta soldata guztiak itzuli zizkioten.


Lau urte geroago, Estatu Batuetako gobernuak ezarritako murrizketek (*Inmigration Act, 1924*) guztiz eten zuten “Kaliforniarako migrazioa”⁶.

Zelan ordaintzen zuten bidaia

Bidaiak sortutako gastuek familia asko zorretan sartzea edo euren ondasunen zati bat saltzea eragiten zuten. Esate baterako, Amoroako Antonio Azpirik 1.000 pezetako zorra egin zuen lau auzokorekin, Estatu Batuetarako bidaia ordaintzearen. Azpirik, bermerako, lur batzuk utzi zituen jaioterrian (*Maileguaren Baldintzak,*

rentzat lan eginda ordaintzen zuten, harik eta zorra kitatuta geratu arte. Baziren aparteko interes barik senideren baten bidaia ordaintzen zutenak ere.

Jose Antonio Onaindia *Bronko*-k, Amoroako bera, laguntza eskatu zion anaia nagusiari, bidaia ordaindu ahal izateko. Ez zen nahikoa Somorrostroko meategietan erremintari-laguntzaile lan eginda aurreztutakoa⁷. Esnerik ematen ez zuen behia loditzen jarri zuen anaia eta, behin gizenduta, saldu eta Antoniori eman zion irabazitako dirua. Hark eta haren lagunek itsasontziaren bodegan egin zuten bidaia, lastan zihoala aprobetxatuta. Modurik merkeena zen, baina itsasaldia bel-durgarria suertatu zitzaien⁸. Aipatu dugunez,



Zorra kitatu izanaren agiria.

1904). Artzain emigranteek maileguak eskatzen zituzten, bidaia ordaintzeko ez ezik soldadutzatik libratzeko ere (“eskudiruzko librantza” deritzon sistema) eta, horrela, erbestera egin zitezkeen. Urte batzuk beranduago kitatu zuen mailegua, artzain bat, Meliton Bengoetxea, familiarekin Lekeitiora etorri zenean

Beste finantziario-mota bat aurretik emigratu eta bizi-maila ona lortutakoen laguntzaz egindakoa zen. Gehienetan mailegu-emailea-

sistema hori oso ezaguna izango zen uneren batean, eta horrek azaltzen du portu britainiarretatik emigratutako emakumeak gutxi izatea; portu frantsesak erabili zituzten, bertara trenez heltzen ziren-eta.

7 Onaindia ez zen izan Ameriketarako bidaia ordaintzearen Somorrostroko meategietara joandako bakarra. Ezagunak dira beste batzuk ere; esate baterako Anastasio Jaio, Munitibarrekoa —urte batzuk geroago, emazte Anuntziarekin batera hotel baten jabea izan zen Renon—.

8 Benito Onaindiaren testigantza, cit.

6 W.A. Douglass-J. Bilbao, Opus cit, 374. orr.



Patxi Goitiaren pasaporte

Anton Azkuenagak aldi batean egin zuen lan hemen otzaragintzan, harik eta, sendiaren ekonomia alde batera utzi gabe, Ameriketara joateko ehun dolar aurreztu arte. Otzarategiko jabeek utzi zioten falta zitzaion dirua. Abade baten laguntzaz, harremantetan jarri zen Bilbon bizi zen ingeles batekin. Pasajearena konpondu zion britainiarrak: lehenengo Ingalaterrara joko zuen eta gero Estatu Batuetara⁹. Azkuenagaren atzetik, makina bat lagun, senide eta auzoko heldu ziren Ameriketara; guztiei lagundu zien, bidaia ordaindu eta Mundu Berrian geratu ahal izateko (*Idaho Statesman*, 1910-02-06). Horien artean zeuden, besteak beste, Agustín anai gaztea, Luis Iturraspe, Pedro Arritola (Ispaterrekoa) edo Cipriano “Sam” Anakabe (*Oregonian*, 1968-07-28). Horiek ere senideak eta auzokoak ekarri zituzten,

⁹ Joseph Harold Geiser, *The Basques of the Jordan Valley area. A study in social process and social change*, University of Southern California, 1944, 25. orr.

eta ondoren berreraikiko dugun katea sortu.

Eta arrantzaleak? Zelan ordaintzen zuten bidaia? Gauza gutxi zuten mailegatzailari emateko, lana izan ezik. %5ek bakarrik zuten bizi ziren etxearen jabetza, eta 1902tik 1920ra bitartean erbestera jo zutenak hogeit bider gehiago izan ziren. Kasu honetan, emandako hitza zen berme bakarra, eta familiak hartzen zuen ordainketaren ardua euren lanaren bidez. 1905 eta 1909 bitartean, Berri-tuko Mateo Arregik egin zien aurre Lekeitioko arrantzale askoren bidaiei. Gero, beste egoera batzuetan moduan, bertan geraturikoek ordaintzen zituzten emigratu nahi zuten senideen gastuak (seme-alabak, anaia-arrebak, lehengusu-lehengusinak).

Emakumeei dagokionez, aldi batean, ostalariek finantzatzeko zituzten neska gazteen bidaia; izan ere, erakargarriak ziren emaztea bilatzen zuten artzaintzat. Neskek hoteleko lanaren bidez ordaintzen zituzten bidaia-aren gastuak (ia beti esplotazio-baldintzetan).

Artzain batek gazte haietako bati ezkontza eskatzen zionean, sarritan, “kaltearengatik” ordaindu egin behar izaten zion ostalariari. Nolabaiteko “askatasun-eroste” hori uneren batean epaitegietako auzi bihurtu zen. Boisen, euskal ostalari gehienak Lekeitioko emakumeekin ezkontuta egoteak azaltzen du herri horretako hainbat emakume bertara heltzea.

Anuntzi Amias gazte bizia zen. Aita, arrantzalea; ama, jostuna. Zortzi urterekin hasi zen lanean lehengusu-lehengusinak zaintzen. Gero, zerbitzari jardun zuen Elantxoben, Zarautzen eta Bartzelonan; Lekeitiara itzuli eta kabanari hasi zen beharrean. Ordurako, aurrezki txiki batzuk batuta zituen arrearako. Baina osaba bat zuen Idahon, Ameriketara joateko konbentzitu zuena. Ia pentsatu ere egin barik, aurrezki guztiak erabili zituen bidaia ordaintzeko. Gainerakoa osabak utzi zion. Heldu zenean, Peru Antxustegi lekeitiarraren hotelean jardun zuen urte bitan, Mountain Homen. Zorra kitatzea, etxera dirua bidaltzea eta berarentzat apur bat gordetzea lortu zuen. Zazpi urte geroago, Anastasio Jaiorekin ezkontuta eta Boisen bizi zela, ahizpa Luciaren bidaia ordaindu zuen.

Luciana Aboitiz, “Lucy Garatea”, osaba batekin, Ignacio Barandika, eta lehengusina batekin, Visitación Arriaga, joan zen Ameriketara. Beste osaba baten (Francisco Agirre “Zapatero”) erreferentziak zeramatzan; amaren ahizpa Gabina Goitiarekin ezkontua, Boisen *Star Hotel* zuten eta bidaia ordaindu zioten. Neskame jardun zuen aldi batean osaba-izeben hotelean. Denetarik egiten zuen: garbitu, lixiba egin, lisatu eta lehengusu-lehengusina txikiak zaindu. Ustez, lan harekin bidaia eta egonaldia ordaintzen zituen.

Euskal Herrian nahiko sustraitua zegoen ohitura hura, hain zuzen ere, morroi edo neskameena. Familiek kide gutxiago elikatu behar zituzten eta seme-alabak senideen edo auzokoen etxetara bidaltzen zituzten “tripa truke” (janaria zerbitzuaren truke: *hand to mouth*). Ohitura hori Ameriketara eramane zuten. Ezkontzeko, Nabarnizeko Esteban Garatea senargaiak osabari bidaia-gastuak, ostatu-ematea eta azken urte bietako errenta ordaindu behar izan zizkion. Lucianak beharrik egin ez balu bezala!

Beste neska batzuei Estatu Batuetan familia osatutako senideek deitzen zieten etxeko lanetan laguntzeko eta, batez ere, umeak zaintzeko; hirian zein arrantxo isolatuetan geraturikoek egiten zuten aipatutakoa.

Aurrenekoak

William A. Douglasssek oso egoki irudikatu du “katean egindako migrazioaren prozesua”. Nabarmentzen duenez, “emigrazioak ez dio elementu mikroanalitikoei (gizarte-egituren ezaugarriak, eredu demografikoak eta herrialdeko legedia) bakarrik erantzuten; mikroprozesua da. Hau da, herrialde hartzailean geratu ostean, emigrante bakoitza jarraikako katearen balizko katebegi bihurtzen da. Etorkizuneko emigranteen lotura bideragarria da: senide, herrikide edo, behinik behin, ezagunena. Gainera, emigrante horiek eragile aktiboak izan daitezke eta euren antzeko inguruetatik datozen emigranteak euren erakartzen ahalegindu. Ezaugarri horietan mugatuta, emigrazioa ez da gertatzen makrounitatetan (Espainia, Euskadi, Argentina



Lekeitio, postala

edo Estatu Batuak)¹⁰. Euskaldunei dagokienez, emigrazioak herri zehatz batetik beste herri zehatz batera egindako mugimenduak dira. Douglasssek eta Bilbaok Arnegiren (Behenafarroa) eta Buffaloren (Wyoming) arteko parekotasuna egiten dute (*Douglas & Bilbao*: 335). Lekeitiori dagokionez, emigranteak Nevada iparraldean (Humboldt eta Elko konterriak), Oregoneko Jordan Valleyn eta Idahoko Boisen nahiz inguruko herrietan bakarrik zeuden. Ikusiko dugunez, gehiako ere zehaz daiteke: Arropaineko euskaldunak (Ispasterreko zein Lekeitio auzoa) Jordan

10 William A. Douglas, “Factores que intervienen en la formación de la diáspora emigrante vasca al Nuevo Mundo” F.X. Medina (comp), *Los otros vascos. Las migraciones vascas en el siglo XX*, Madrid (1997): Fundamentos, 31. orr.

Valleyko komunitate euskaldunaren oinarria izan ziren.

Lekeitioko postal zaharrak hiribilduaren alde ezagun biak erakusten ditu. Portuan eta inguruko kaleetan, arrantzaleak bizi ziren. Ezkerretara, ia ez da igartzen Erdi Aroko gunea; hor nagusi ziren merkatariak eta artisauak, “txaputxeroak” (txapuzak egiten dituztenak). Nahiz eta gero emigrazioa herri guztira zabaldu, azken auzo honetatik irten ziren lehenengo emigranteak, Mendebalde amerikarrera joateko.

Memorias liburuan, Henry Alegriak dio 1920ko hamarkadara arte Boiseko euskaldun gehienak Lekeitiotik eta inguruetatik joandakoak zirela. Handik aurrera, Aulestikoak izan ziren gehienak¹¹. Jon Bilbaok ere sendotu egiten du ideia hori: “Komunitatea, batetik,

arrantzaleek osatzen zuten eta, bestetik, baserritarrek; kostaldetik ehunka kilometrora eta urruneko herrialde batean, artzain-kolonia antolatu zuten¹².

Lekeitio ia kilometro karratuko herria da. Herritar gehienak itsasotik edo harekin lotutako lanbideetatik bizi ziren (ontziolak, kabanak...). Ez ziren bizi baserri isolatuetan, herri-gunean baino, solairuetan.

Lekeition, gainera, herritarrak alde bitan banatzen ziren: *txaputxeruoak* (txapuzak egiten dituztenak, hau da, artisauak, merkatariak, bizargileak, mekanikariak, zapatagileak, erre-

11 Henry Alegria, *75 Years of memoirs*, Caldwell, ID (1981): The Caxton Printers, 35. orr.

12 Jon Bilbao, “La Historia de los Vascos en el Oeste de Estados Unidos” cit, 5. orr.

mentariak...) eta *mariñeruoak* (arrantzaleak). Batzuen eta besteen artean, itsasgizonak zeuden, *nabegantiak*. Hori gutxi ez, eta auzo desberdinetan bizi ziren. Mariñeruen etxebizitzak, normalean, txikiagoak ziren. Gainera, familia handiak izanik, pilatuta bizi ziren sarritan, ia leku barik¹³.

Euskal gizarte tradizionalan, *kaletar* izenez ezagutzen ziren batzuk eta besteak. Iñaki Arrietak adierazten duenez, “euskaraz konzeptu horrekin udalerrriaren barruko gunean bizi zirenei deitzen zieten. *Baserritarra*, ostera, baserrian bizi zen, hau da, etxean bizi eta lan egiten zuen” (...) Talde bi horietan oinarrituta, *kaletarra* eta *baserritarra*, euskal gizartea multzo handi bitan sailka dezakegu, ezaugarri ekonomiko, sozial eta kultural bereziekin¹⁴.

Horrez gain, Joe Eigurenek gogoratzen zuenez, “desberdintasunak zeuden hizkeran, izaeran eta zaletasunetan”. Bestalde, euskalkien aldagaiek eta lanbideekiko harrotasunak sakondu egiten zituzten desberdintasunok, janzkeran bertan ere igartzen zirenak¹⁵.

1900 eta 1924 bitartean, Lekeitioko ia berrehun *mariñeru* erbesteratu ziren Mendebalde amerikarrera. Oso gutxi jardun zuten arrantzan Kaliforniako edo Columbia Britainiarreko portuetan. Batzuk, gainera, itsasoan aldi bat eginda, Idahora joan ziren. Beste batzuek alderantziz egin zuten: ezin izan zioten mendiko edo basamortuko bizimoduari eutsi eta kostaldera jo zuten; dena dela, gehienak ardiekin geratu ziren, betiko. Harrigarria da ikustea talde-lanera ohituta zeuden arrantzale haiek zelan egokitu ziren mendiko edo basamortuko bakardadera, artaldeekin lan egiteko. Arrantzaleen ostean, Learen itsasadarrean itsasontziak egiten zituzten *ontziotako langileak* izan ziren ugariak, hirurogei inguru.

1900era arte, hogeita bost lekeitiarrek emigratu zuten Mendebalde amerikarrera. Haiek, XIX. mendearen azken hamarkada bietan irten zirenak, har daitezke *aurrenekotzat*. Aurreneko haiek zabaldu zuten lehenengo bidea eta, batzuetan, senide, auzoko eta lagun bidaia ordaindu zituzten. Ez da gehiegikeria, hasieran, *familiako emigrazioa* izan zela esatea.

13 Jose Miguel Ugarteitxe, *Lan guztiak, Lekeitio* (1991): Lekeitioko Udala, 9. orr.

14 Iñaki Arrieta Urtizberea, “Dinámicas poblacionales en un municipio rural vasco (Oíartzun, 1930-1980): baserritarrak y kaletarrak”, *Ager*, 10. zkia, 2011ko apirila, 73. orr.

15 John Bieter & Marc Bieter, *Un legado que perdura. La historia de los vascos en Idaho*, Vitoria-Gasteiz (2005): Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 25. orr.



Jesus Atxurra

Gehienetan, emigranteak jatorrizko bizilekua-
ren arabera elkartzen ziren toki zehatz batean.
Arropaineko taldea, Anton Azkuenagaren in-
guruan sortua, Jordan Valley-n eta Owyhee
eskualdean, geratu zen, nahiz eta Boiseen ego-
naldiak egin, berriro itzultzeko. Salbuespena
Domingo Odiaga *Txotxo Madalenakua* izan
zen: Boiseen zegoen noizko eta 1887rako.

Bestalde, bost hamarkadatan, Jordan Val-
leyko herritarren heren bi euskaldunek osatu
zuten. Leku isolatua izanik, hizkuntzari ez zik
bizimoduari eta ohiturei ere eutsi zieten. Ho-
rrez gain, endogamia-maila handia sortu zen
(euskaldunen arteko ezkontzak).

Arropaineko taldeaz gain (geroago hitz
egingo dugu horretaz), *aurrenekotzat* ditugu
1900eko abenduaren 31ra arte heldutakoak
(gizonezkoak zein emakumezkoak), hau da,
emigrazioa XIX. mendean egindakoak.

Joe Valentin Mendieta 1873ko maiatzaren
1ean jaio zen. New Yorkera 1897ko martxoar-
ren 22an heldu zen *Campania* itsasontzian,
Liverpooletik irten eta gero. Winnemuccara
(Nevada) joan zen. Gutxienez beste bidaia bi
egin zituen: 1903an eta 1908an. Azkenean,

nazionalitate amerikarra lortu zuen. 1910ean,
garraiolari-lanak egiten zituen arrantxo ba-
tean: Nevadako *Mc Gill, White Pine Company*
enpresan. 1917tik 1930era, bere konturako
baserritarra zen Kaliforniako *Latony, Fresno*
Company-n. Bedaronako Marcela Barainka-
rekin ezkondua, Luciano (1904), Eusebio
(1908), Miguel (1914), Antonio (1915) eta
Pedroren (1918) aita zen.

Jesus Atxurra, 1875eko urriaren 13an jaioa,
1898an heldu zen. 1900ean, arrantxo batean
lan egiten zuen (*Rebel Creek, Humboldt Co.*).
Beste bidaia bat egin zuen 1906an. 1907an,
Winnemuccan zegoen. 1917tik 1921ra, arran-
txeroa zen (*Oregoneko Voltage, Harney Co.*).
Azken urte hartan Lekeitiora jo zuen emazte
Josefa Egañari laguntzera, gaisorik zegoen-
eta. 1924an nazionalitatea berresteko eska-
bidea egin zuen Bilboko Kotsulatu amerika-
rrean. Asmoa Oregonera itzultzea zen, behin
emaztea sendatuta. Atxurrak txosten medikoa
eta Bilboko *Sanatorio Zarza*-n egindako eba-
kuntzaren eta egonaldiaren ordainagiriak aur-
keztu zituen, 1500 pezetakoak; dirutza itzela
sasoi hartarako. Azken batez, aurreztutako
gehiena medikuen esku geratu zen.

Boiseko lehenengo euskalduna

Hainbat teoria dago Boiseen bizitzen jarri zen
lehenengo euskaldunari buruz: Lekeitio-Arro-
paine Juan Domingo Odiaga, ala Gizabu-
ruagako José (Antonio) Uberuaga, ala Narcisa
Guarrotxena, José Gestal-en emaztea, sukal-
dari galiziarra. Odiagari dagokionez, 1887an
Boiseen abeltzaina zela agertzen da San Fran-
tziskoko Kotsulatu espainiarraren erregis-
troan, baita azken auzotasuna Lekeitio izango
zela ere¹⁶.

Juan Domingo Odiaga, *Txotxo Madalenakua*,
Arropain-Lekeitio auzoko Madalena baserrian
jaio zen 1869ko martxoaren 8an. Hamarka-
da osoa Idahon egon eta gero, 1896ko aben-
duaren 12an hiritartasun amerikarra lortzeko
tramiteak egiten hasi zen Boiseko epaitegiko
Kingsley epailearen aurrean (*Idaho Daily Sta-
tesman, 1896-12-13*): bide hori erabili zuen
lehenengo euskaldunetako bihurtu zen. Az-
kenean, 1905eko urriaren 28an eman zituen.
1896an, anaia Francisco heldu zen, urteak
geroago Nevadan abeltzain famatua izango
zena.

Behin bizi-maila ona lortu ondoren, Lekeitiora
itzuli zen, 1899an, ezkontzeko. Urte hartako
irailaren 13an egin zuen Paula Fresnedorekin.
Elizakoa Lekeitioko parrokiari izan zen. Bost
seme-alaba izan zituzten: Paula, Maria, Jose,
Avelina eta Pía. Ohiturari jarraituta, familia
Lekeitio utzi eta Idahora itzuli zen Odiaga,
negozioak zaintzeko. 1908an, berarekin el-
kartu ziren emaztea eta alaba nagusi biak;
ordura arte amaren aldeko amamarenean bizi
ziren Durangon. Hirurek egin zuten itsasbidaia
La Savoie-n, Jose eta Pía Navarrokekin, euron
iloba Maria eta Felix Eigurenekin, Julio Mendi-
arekin, Jose eta Felipa Uberuagarekin eta euron
alaba Maria eta Blancarekin, eta beste zazpi
lekeitiarrekin. Familiak beste hiru seme-alaba
zan zituen Amerikan eta Bruneau.n bizitzea
erabaki zuten, Owyhee konderrian.

1911n, Odiaga ardi-jabea zen Boiseen. Urte
haitan, "Doc" Harry Sylvester Bettis dokto-
rearen bazkidea izan zen *Rancho Cover Flat*-
en; hain zuzen ere, Idahoko hiriburuan jarri
zen lehenengo haginlaria. 1916an, artaldea
eta arrantxoaren zatia Markinako Valentin Bar-
rinaga(rrementeria)ri saldu zizkion (harentzat
lan egin zuen zortzi urtetan). Lekeitiora itzuli
eta Arropaineko familiaren baserrian geratu zi-
ren bizitzen. 1928an, Jose seme nagusia (Bru-
neau, Owyhee, 1909-01-27) Estatu Batuetara
itzuli zen, Boiseera. Gerra zibilak Lekeitio har-
rrapatu zuen. 1937ko abuztuan gerra-itsason-
tzi amerikar batek atera zuen hemendik eta
Estatu Batuetara joan zen. 1942an, Ejertzito
amerikarrean eman zuen izena New Yorken.

¹⁶ San Frantziskoko Kotsulatu Nagusia. Espainiarren zerren-
da, 1893-1915: 1904-03-28.

Arropain

Lekeitio-Durango errepideko zuzen luzearen amaieran, Ateako guruztokitik Azurtuako Santa Maria Magdalenaren ermitarako tartean, Arropain dago, zati bat Ispasterreko Krutziaga auzokoa, eta bestea, Lekeitiokoa. Hementxe zegoen hiribilduaren jatorrizko portua eta, XX. mendearen hasierara arte, ontziola bi ere bai; han, inguruko herrietako eta herrixketako arotzek egiten zuten lan (Ispaster, Amoroto, Mendexa, Gizaburuaga). Baserri sakabanatu batzuk ere badira: *Benta zaharra*, *Sosuena*, *Zubieta*, *Amillaga*, *Madalena...* edo errepide berria egin ostean eraikitako etxeak (*Troixa*, *Gasparrenekua...*). Batzuk Ispasterrekoak dira; beste batzuk, Lekeitiokoak. Auzo honetan bizi ziren Akarregitarrak, Atxabaldarrak, Odiagatarrak, Uberuagatarrak, Azkuenagatarrak, Eigurendarrak...

Eva Hunt Dockery zera dio Antonio Azkuenagari buruz: “*the first Basque who came to this state (Idaho)*” (“Estatu honetara etorritako aurreneko euskalduna”). Hala ere, eta lehen-txoago esan dugunez, Odiaga 1887an Boisen abeltzaina zela agertzen da San Frantziskoko Kontsulatu espainiarraren Erregistroan, baita azken auzotasuna Lekeitio izango zela ere. Azkuenagari dagokionez, badirudi Ameriketatik milaka dolarrekin eta hainbat konturekin itzulitako auzoko batek animatu zuela berarekin joateko¹⁷.

Hainbat egilek jarraitu dute Sol Silen-en narrazioa, Jose Navarrok eta Anton Azkuenagak Nevada iparraldetik Oregoneko Jordan Valleyra egindako bidaia zela-eta. Navarro Ibarrangeluko Akorda auzoan jaio zen eta Azkuenaga, Abandoko elizatean (gaur, Bilbo). Ez zegoen argi elkar ezagutzen zuten edo ez, ala, Nevadan bat egin ondoren, Iparralderako abentura egitea erabaki zuten. Errolda desberdinen arabera, urte berean heldu ziren biak Estatu Batuetara.

Gaur gehiago dakigu. Lisa Korkostegi genealogistak aurkitu zuen Anton Azkuenaga, nahiz eta Abando-Bilbon jaio, bere neba-arrebekin hazi zela Arropain auzoan, izeko amama batekin. Gainera, badakigu Azkuenaga Lekeition zegoela 1887an otzaragile lanak egiten. Badakigu baita, 1886ko azaroan, Jacoba Navarro, Joseren arreba, Jose Eigurenekin ezkondu eta Arropaineko Zu-



Antonio Azkuenaga

bieta baserrira joan zela bizi izatera. Baserri hori Azkuenagaren etxetik ehun eta berrogei metrora dago.

Baina itzul gaitezen Silen-engana. Haren lanean aipatzen da Azkuenaga 1887ko apirilaren 3an heldu zela New Yorkera. Handik trenez joan zen Winnemucca-ra, gorabehera batzuk izan ostean (S. Silen:49). Urte hartan Lekeitioko parrokiako eliztarra zela agertzen zen (*Erregistro Liburua*). Jose Navarrori dagokionez, Hawley-ren *History of Idaho* liburuan—Silenek ez du datu hori ematen— 1887an heldu zela agertzen da eta urte bi egon zela Nevadan, Jordan Valley-rako ibilbideari ekin aurretik (Navarorenaren antzekoa). Navaroren iloba batek (seguruenik Fred Eiguren izango da) Hellen Kortari esan eta Sarah Baker Munrok bildutako testigantzan, adierazten da euskaldun biak elkarrekin heldu zirela Winnemuccara New Yorketik, Salt Lake Citytik igarota; beraz, ematen du elkarrekin egin zutela ibilbide guztia¹⁸. Jakiteko dago Navarro non bizi zen emigratu aurretik.

Antonio Azkuenaga, nahiz eta Abandon jaio 1868ko ekainaren 17an, Arropainen hazi zen, Lekeitiorena zen aldean. Hura, anaia txikia eta arreba nagusia umezurtz geratu ziren oso umetan. Agustin anaia txikia erditu ostean hil zen ama, eta aita, urte bi geroago, 1874an.

Anton zazpi urte bete barik zegoen. Orduan, senide batzuekin (Uberuagatarrak, jatorriz Gizaburuagakoak) joan ziren bizitzera Arropaineko *Troixa* etxera. Uberuaga zaharraren emaztea umezurtzen izeko amama zen. Herriko eskolara joan zen, harik eta, adina izan zue-nean, otzaragile egin arte, senideen lanbidea. Ez Silenen lanean, ezta *History of Idaho* bildumaren hirugarren liburuko biografian ere¹⁹, ez da agertzen zelan eta zergatik erabaki zuen Mendebalde amerikarrera emigratzea.

Bilbotik Bristolera joan zen eta handik Liverpoolera; beste gazte euskaldun batekin itsasoratu zen han. Hemeretzi urte zituen orduan. 1887ko apirilaren 3an iritsi zen New Yorkera. Trenz heldu zen Winnemuccara, bidaia gorabeheratsuaren ostean, eta artzain lan egin zuen. Handik, McDermitt-era jo zuen eta beste euskaldun batekin, Akorda-Ibarrangeluko Jose Navarrokekin, bazkidetu zen, eta Oregoneko Jordan Valleyra joatea erabaki zuten. Bidaian, bost egun egon ziren galduta eta estu eta larri lortu zuten diligentszia-postu batera heltzea.

1889ko apirilean, ardiak zaintzen zebilen Owyhee-ko mendietan. Urte hartan bertan, Jordan Valleyra itzuli zen. Luzaroan, Azkuenaga izan zen hango euskaldun bakarra. Artzain lan egiten zuen bitartean, errementeria erosi zuen. Sei urte egon zen negozioan eta, saltzeagatik lortutako etekinekin, hornigaien denda bat ireki zuen (*Jordan Valley Mercantile Company*); 1902an saldu zion Fred J. Palmer-i (*Idaho Statesman*, 1902-07-25) eta, aldi batera, artaldea erosi zuen (haren aberastasunaren jatorria izango zen).

1900ean, Boisera heldu zenean bertan bizi geratzeko, beste bazkide birekin *Oregon Hotel* erosi zuen, bederatzigarren eta aurreko kaleen ertzean. *Oregon Short Line Railroad* geltokiaren aurrean zegoen. Handik urte batzuetara Mateo Arregiri alokatu zion.

1909an, *Jordan Valley Livestock & Land Co*-ko arduraduna zen; anaia Agustin eta Elmer Clark ere bazkide ziren. 50.000 dolarreko kapital soziala zuen (*Idaho Statesman*, 1909-07-29). Geroago, enpresaren izena *Azcuenaga Valley Livestock & Land Co* izan zen. Urte horretan, anaia Agustin eta Jose Navarrokekin batera, Boiseko *Hotel Iberia* enpresaren jabea zen (*Idaho Statesman*, 1909-12-10).

¹⁷ Joseph Harold Geiser, *The Basques of the Jordan Valley area. A study in social process and social change*, University of Southern California, 1944, p. 25.

¹⁸ Sarah Baker Munro, “Basque folklore in Southeastern Oregon”, en Richard Etulian (ed), *Basques of the Pacific Northwest*, Pocatello (1991): Idaho State University Press, 26. orr.

¹⁹ *History of Idaho. The Gem of the Mountains Vol. III*, Chicago (1929): The S.J. Clarke Publishing Co., 246-249. orr.



Agustín Azkuenaga eta emaztea



Agustín Azkuenagaren etxea (Wrotten House deritzote orain), 1920an euskal harginek eraikia.

1917an, Estatu Batuak Lehen Mundu Gerran sartzean, behizain eta ostalari euskaldun batzuek sortutako batzordearen idazkari bihurtu zen (John Atxabal, Juan Anduiza, Luis Bermeosolo, Mateo Arregi, Jose Uberuaga, Jose Mendiola, Juan Etxebarria, Francisco Arregi eta Anastasio Jaio), eta Idahoko gobernadorearengana jo zuten, herrialdeari leialtasuna eta laguntzeko borondatea erakusteko (*Idaho Daily Statesman*, 1917-03-30).

1901eko urtarrilaren 31n ezkondu zen Gizaburuagako Consuelo Uberuagarekin, eta Boisean geratu ziren bizitzin. Seme-alabak Daniel, Ines Pia, Edwin eta Fernando izan ziren. 1917an, Azkuenaga Idahoko gizonik aberats eta itzal handikoenetzat zuten. 1950eko maiatzean hil zen Boisean (*Silen: 49-50/History of Idaho*, 1920: 246-249).

Agustín, "Gus", Azkuenaga anaietako gaztea (1872-08-27), 1890ean heldu zen. Jordan Valley-ra jo zuen, anaia Anton bertan bizi zena. Boiseko katedralean ezkondu zen 1896ko martxoaren 26an Lekeitioko María Agustina Urkizarekin, eta Owyhee-ko lehenengo senar-emazte euskaldunak bihurtu ziren (*Owyhee County marriages 1890-1904, Owyhee, ID*). Agustina, gainera, Idahoko lehenengo emakume lekeitiarra izan zen.

1900ean, Azkuenaga-Urkiza sendia senar-emazteek, seme nagusi biek eta iloba batek, Maria Uberuagak, osatzen zuten; Maria, hamabost urtekoa, 1899tik zegoen Estatu Batuetan. Pleasant Valley-n bizi ziren. Handik Oregoneko Jordan Valleyra jo zuten.

Agustín aldi batean Boisean bizi izan zen, Jordan Valleyn hotela (*Jordan Valley Hotel*) eta saltoki handi bat (*general store*) eraiki arte, eta handik aurrera Oregoneko herritarra horretan bizitzin geratu zen (*Etulain*, 1991: 2). 1929ko finantza-krisi gogorak bete-bete harrapatu zuen. Arrantxo eta ardiak galdu zituen: 100.000 dolarreko balioa ematen zien (*J.H. Geiser: 85*). Bost seme-alabaren aita izan zen: Antonio (1897-03-04), Luis (1899-04-16), John (1901-04-04), Alice (1907-08-14) eta Ethel (1910-08-06). Idaho Falls-en hil zen 1942ko otsailaren 2an. Jordan Valleyn dago hobiratuta.

Mendea amaitu barik zegoen, Anton eta Agustín ilobetako bi heldu zirenenan: Maria eta Lorenzo Uberuaga. Aurrenekoz, 1899an, Maria joan zen, Florentinaren eta haren lehenengo senarraren alaba. Arropainen jaio zen 1883ko urriaren 6an. Idahoko Silver City-n ezkondu zen Pedro Arritolarekin 1905eko abenduaren 20an. 1910ean, Boisean zegoen. 1920 eta 1930 bitartean, Oregoneko Jordan Valleyn bizi ziren. Eduardo, Lorenzo, Pascual, Paul, Manuel, Joe eta Johnen ama izan zen. Nampán hil zen 1934ko ekainaren 10ean.

Urtebete geroago, 1900eko abuztuaren 20an, heldu zen Lorenzo (Lekeitio, 1888-09-05) New Yorkera, Le Havretik irtendako *La Lorraine* itsasontzian. 1917 eta 1920 bitartean, Idahoko Brunzell-eko (Owyhee konterrria) baserri batean zegoen, anaia Pedrorrekin batera. Gurasoak ere bertan bizi ziren: Agustín eta Florentina. Luis Murelagak lan egiten zuen bertan. 1942ko urriaren 9an Edna Kochekin ezkondu zen. 1945ean erretiratu zen eta Nampán geratu bizitzin. 1936an, baserriarra eta abeltzaina zen Reynolds-en (Owyhee). Amerikar hiritartasuna lortzeko tramiteak egin zituen. Nampán (Canyon) hil zen 1969ko martxoan.

Mariaren eta Lorenzoren ostean, Valentina izan zen hurrengoa (Lekeitio, 1891-02-15). Emigratu aurretik, jostuna zen. *La Lorraine* itsasontzian heldu zen New Yorkera, 1907ko abuztuaren 24an, Le Havretik irten ostean. Jordan Valleyra jo zuen, bertan osaba Anton Azkuenaga zegoen-eta. Elias Gabikarekin ez-

kondu zen. Charlotte, Ricardo, Pedro, Louise eta Aliceren ama izan zen. Urte askotan Nampán (Canyon konderrria) bizi izan zen. Oregoneko Ontarion hil zen, 1973ko irailean.

Agustín Uberuaga Arropain-Lekeitioko Troixa izeneko etxean jaio zen, 1859ko irailaren 2an. Emigratu aurretik, otzaragilea zen, aita eta Azkuenaga anaiak bezala. Lekeitio ezkondu zen Florentina Azkuenagarekin 1887ko abenduaren 10ean, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Florentinak alaba bat izan zuen Jose Ignaciorekin izandako ezkontzatik, Agustín anaiarekin. 1896an heldu zen



Lorenzo Uberuaga



Valentina Uberuaga eta Elias Gabikagogeaskoa

Ameriketara lehenengoz. 1900an, artzain ari zen koinatu Agustinentzat Pleasant Valley. 1908an, Agustin Uberuagak aldi batean Lekeition egon eta gero, berriro heldu ziren Agustin, emaztea eta seme txikia, Pedro, eta Lorenzorekin elkartu ziren. Une hartan elkartu ziren hiru Azkuenaga neba-arrebak (Anton, Gus eta Florentina). 1920an, Agustin Uberuaga emaztearekin eta seme biek (Pedro eta Lorenzo) bizi zen Idahoko Reynoldsen. Owyhee-n hil zen 1924ko abenduaren 27an (*Voices from Basque America: Richard Gabica, CBS-UNR*).

Pedro Uberuaga (Lekeitio, 1894-06-29) gurasoekin heldu zen 1908an. 1914an, 160 akreko lursaila erosi zuen Brunzell-en (*Idaho Statesman, 1914-12-04*). 1917ko azaroaren 2an Ejertzito amerikarrak errekrutatu zuen; une hartan, amerikar hiritartasuna lortzeko asmoa erakutsi zuen. 1920an, anaiaren bazkidea zen Brunzelleko baserrian. Nampan hil zen 1939ko urtarrilaren 10ean.

Lagunei dagokienez, Cipriano Sam Anakabe (Lekeitio, 1862-09-16) izan zen, hain zuzen ere heltzen lehenengoa, 1889an, Jordan Valleyra (*Oregonian, 1968-07-28*). 1894ko ekainean, gutun bat zuen Boiseko posta-bulegoan (*Idaho Daily Statesman, 1894-06-30*). 1896an, berarekin elkartu ziren Bibiana Argintxona emaztea (Natxituan ezkondu ziren) eta seme John B. 1900ean, abeltzaina zen Pleasant Valley-n (Owyhee). Urte hartan, haren langileak ziren Domingo Okamika eta John Akarregi.

Pedro Arritola (Ispaster, 1867-06-12), 1893an heldu zen Estatu Batuetara. Artzain ibili zen Nevadan eta Oregonen. Abeltzain bihurtu eta 1917an arrantxo baten jabea zen Dry Creek-en, Boisetik 10 miliatara. *Iberia Hotel*-eko bazkidea ere bazen, Antonio eta Agustín Azkuenagarekin eta Jose Navarrokekin batera. 1930ean, arrantxeroa zen Oregoneko Jordan Valleyn (Malheur konderrria). 1905eko abenduaren 20an, Anton Azkuenagaren iloba Maria Uberuagarekin ezkondu zen Silver City-n. Sei seme izan zituzten (*Silen: 195*). Oregonen hil zen 1933an.

Pedroren ondoren, 1894an, anaia Juan Manuel heldu zen (1862-04-19). Emigratu aurretik okina zen. 1906an, Ispasterrean egin zuen seme Dionisioren bila. Bestea, Rufino, berarekin zegoen hiru urte lehenagotik. Artalde batzuen jabea izan zen eta, semeekin batera, konpainia bat sortu zuen. Jordan Valleyn hil zen 1921ean.

Rufino "Rufus" (1887-11-16) 1903ko

martxoan heldu zen New Yorkera *Yvernia*-n, Liverpooletik irten ostean. Jordan Valleyn geratu zen, aita eta osaba bertan bizi ziren-eta. Artzain jardun zuen eta, aldi batean, *Jordan Valley Mercantile Co* enpresan ere bai (Azkuenaga anaientzat, batean zein bestean), harik eta bere kontura ardiak hazten hasi arte. *Garden Ranch*-en jabea izan zen edo *Arritola Ranch* moduan ezagutzen zutena. Anaiak, gainera, *Arritola Sons and Co* ardi-konpainiaren buruak ziren (aldi batean Jose Goikoetxearen bazkideak izan ziren) (*Idaho Daily Statesman, 1925-11-23*). 1930 eta 1940 bitartean, billartegia izan zuen Jordan Valley. 1911ko urriaren 9an, Idahoko Nampan ezkondu zen Maria Elordirekin. Luis (1912-07-26), Benjamin eta Virginiaren aita izan zen.

Dionisiok (1891-10-05) hamalau urte zituen, aita Ispasterrean bila joan zitzaionean. 1917an, bere kontura ziharduen abeltzain eta baserriar Malheur, Oregonen. Urte hartan, azterketa medikoa egin ostean, soldadutzarako balioekotzat jo zuten. Artzain lan egin zuen *Bruneau Sheep Co*-rako, baita *J.D. Aldecoa*-rako ere. 1930ean, Grasmere-n bizi zen. Idahon hil zen 1964ko urtarrilaren 20an.

Arritola anaietako gazteena, Fermin (1897-09-25), 1915eko maiatzaren 1ean heldu zen New Yorkera *Californie*-n, Bilbotik irten ostean. Jordan Valleyra joan zen, aitarenera. 1918an, Justo Korta herrikidearen ardiak zaintzen zituen. Boiseran joan eta zaindari (*custodian*) jardun zuen urte batzuetan. 1967an nazionalizatu zen. Boisen hil zen 97 urterekin 1994ko azaroaren 24an.

Anton Azkuenagaren lagun-taldeko azkena Luis Iturraspe Uberuaga zen (1870-01-22). 1893ko martxoaren 22an heldu zen Estatu Batuetara. 1893ko abenduan, Jose Uberuaga lehengusuarekin batera, *City Restaurant and lodging house* erosi zioten R.J. Luark-i. 1894ko urtarrilaren 1ean hastekoak ziren jarduerarekin (*Idaho Daily Statesman, 1893-12-24*). Gelak ere alokatzen zituzten. 1917 eta 1930 bitartean, arrantxo biren jabea zen Jordan Valley-n eta Jordan Creek-en (*Luis Ranches*). Gainera, harrizko etxea eraiki zuen Jordan Valley-n, "White House" izenez ezagutzen zutena. Arropain-Lekeitioko Natalia Akarregi Bilbaorekin ezkondu zen herri horretan bertan (Natalia jaiotzez Arropain-Ispasterrekoa zen). Jesus (1900-10-19), Jose (1901-10-15), Maria (1906-07-02) eta Luisaren (1919) aita izan zen. Jordan Valleyn hil zen 1933ko urtarrilaren 3an.



Rufino eta emaztea



Dionisio



Luis Iturraspe eta familia



Iturraspe-Bengoetxea
etxea Arropainen
(arg. Mikel
San Sebastián)

Iturraspek eta beste artzain “amerikar” batek, Bedaronako Meliton Bengoetxeak, lursail bat erosi zioten Arropainen Antonio Mendieta Maguregiri eta han, 1907an, bizitza biko etxea eraiki zuten.

Iturrasperen koinatuak eta Odiaga, Ube-ruaga eta Azkuenagatarren auzokoak Arropainen Akarregi anaiak izan ziren, *Benta* edo *Benta zaharra* baserrikoak, gaur desagertuta dagoena eta Ispasterreko lurretan zegoena. Domingo (1867-10-21) heldu zen lehenengo, 1896an. 1900ean, artzain lan egiten zuen Agustin Azkuenagarentzat Oregoneko Pleasant Valley (US Federal Census, 1900).



Juan Policarpo
eta emaztea

Bestea Juan Policarpo, *John P.*, zen (1878-01-26). 1899ko otsailaren 28an heldu zen New Yorkera *La Normandie*-n, Le Havretik irten ostean.

doren. Boisera joan eta Jordan Valleyn geratu zen bizitzen. Lau urtetan artzain eta behizain egiten zuen lan Azkuenaga anaientzat, bere artalde erosi arte. 1917an, 5.000 buru zituen, eta Oregonen eta Idaho egiten zuten larretan. 1930etik 1942ra, arrantxo baten jabea zen Jordan Valleyn. Berriatuako Paula Antxustegirekin ezkondu zen Boisen 1907ko uztailaren 3an (*Idaho Statesman*, 1907-07-03). Angel (Boise, 1908-05-31), Antonio (Jordan Valley, 1910-07-14), Floyd (1911-03-07), Juanita (1918-1924) eta Victorren (1919-1969) aita izan zen. 1917an Boisen bizi zen. Oregonen hil zen John P. Akarregi 1943ko martxoaren 30ean (*Silen*:194).

Akarregitarren senideak Aldekoatarrak ziren, Arropainetik hurbil zegoen Kurtziagako baserri batean bizi zirenak. Lehenengo, Domingo heldu zen, 1884an jaioa. 1903ko apirilaren 21ean iritsi zen New Yorkera *Rijndam*-en, Boulognetik irten ostean. Oregonean egiten zuen, han osaba Juan bizi zen-eta. 1910eko apirilaren 3an, odol hotzik hil zuen Charles Wear delako batek. Orduan, Domingo basogizona zen eta artalde handi baten hirugarren zatiaren jabea Jordan Valleyn.

Aitak jarraitu zion, Luis Aldecoa (Ugao, 1860-09-09). Jaioterritik Lekeitiora joan zen eta han arrantza-ontzian ibili zen. 1884ko maiatzaren 17an Lekeition ezkondu Maria Roca Egaña Bilbaorekin eta Ispasterreko Kruzziaga auzoan geratu ziren bizitzen. 1903ko azaroaren 4an heldu zen New Yorkera *Rotterdam* itsasontzian, Boulognetik irten ostean. Boisera joan zen eta bost urte eman zituen bertan. Bigarren bidaia egiten zuen 1909an, Lekeition emaztea bisitatu ostean.

Hirugarrena Leon izan zen (1889-09-12). Emigratu aurretik, arrantzalea zen, aitaren moduan. *Saint Paul*-en iritsi zen, 1906ko martxoaren 21ean. Boisen geratu zen, aita bertan zegoen-eta. 1917an, bere konturako abeltzaina zen Jordan Creek-en, Malheurreko konderriko Jordan Valleytik hurbil. Boisen ezkondu zen 1917ko urriaren 15ean Angela Ziluagarekin. 1935eko irailaren 18an hil zen.

1908ko martxoaren 21ean heldu ziren New Yorkera *Saint Louis*-en, Cherburgon ontziratuta eta gero, beste Aldekoatar bi: Angel (1892-03-01) eta Josefa (1897). Boisera joan zen, aitarenera. Artzain egiten zuen lan osaba Juan Akarregirentzat. 1916ko uztailaren 8an Eve Victoriarekin ezkondu zen Jordan Valleyn. 1917an, bere konturako abeltzaina zen Jordan Valleyn. 1927an, Reynolds Creek-era joan zen familia. 1942an, bere konturako baserritara zen (esnea) Idaho Five Mile-n (Ada konderria). 1959an, Boisen bizi zen erretiratuta, eta apartamentu-etxe baten jabea zen. Saldu eta Jordan Valleyra jo zuen. Hantxe hil zen, 1972ko irailean. Ahizpa Josefa ere, hasieran, Jordan Valleyra joan zen aitarekin elkartzera.



Basilio Aldecoa

Senideetako azkena Basilio “Juan” izan zen (1898-03-22). 1911ko apirilaren 8an iritsi zen New Yorkera *La Savoie*-n, Le Havretik irten ostean. 1918an, Simon Akordagoitiarentzat egiten zuen lan Jordan Valleyn. John Atxabalen bazkidea izan zen. 1930ean, Lazaro Urkiaga koinatuarekin ziharduen Oregoneko Rome-n (Malheur konderria). 1939 eta 1948 bitartean, baserritarra zen Boisen. Juanarekin ezkondu zen. Boisen hil zen 1968ko abenduaren 20an. Jordan Valleyn dago lurperatuta.



Eiguren Navarro familia Zubietan.

Zubietako Eigurendarrak


Zubieta Ispasterreko lurretan dagoen gunea da, Lekeitiokoek inguratua. Bertan daude Adan de Yarzarren jauregia eta Zubieta baserria, jauregiko lorategiaren mugen barruan²⁰. Hantxe bizi izan ziren Mendexako Jose Eiguren eta Akorda-lbarrangeluko Jacoba Navarro senar-emazteak. Jacoba Jose Navaroren arreba zen, Anton Azkuenagaren bazkidea eta

abenturetako laguna. Navarro Lekeitoria etorri zen Mendexako neska batekin ezkontzera: Pia Azpiri. Geroago, iloben, arrebaren seme-alaben eta beste senide batzuen bidaia ordaindu zuen.

Ameriketara egin zuen ilobetako lehenengo Pascual, "Pasko" (1889-05-17), izan zen, 1902an. 1910ean, osabaren bazkidea zen. 1917an, baserritar eta abeltzain ziharduen

Jordan Valley-n. 800 akreko arrantxoa zuen eta *Sheep Ranch* ospetsuan konpainia eta parte zen. Ez zen soldadutzara joan, emaztea eta seme-alabak zaindu behar izateagatik. 1913ko ekainaren 14an Catalina Elordirekin ezkondu zen. Federicoren (Fred) aita zen. 1942an, Oregoneko Malheur konterriko Arock-etik hurbil arrantxo bat zuen. Bertan hil zen 1967ko martxoan.

1908ko apirilaren 25ean heldu ziren New Yorkera *La Savoie*-n, Le Havretik irten ostean, beste anaia bi: Felix eta Maria. Osaba Jose Navarroekin egin zuten bidaia. Felix artzain ibili zen Jordan Creek-en. Jordan Valley-n bizi izan zen. Hainbat arrantxotan egin zuen lan: *Skinner Ranch*, *Oliver Ranch*, *Cow Creek*... 1936an, familia Arock-era joan zen. Anaia Paskorentzat hasi zen lanean Felix. 1938an, bere arrantxoa erosi zuen Arocken, eta bertan jardun zuen erretiratu arte 1958ko abenduan. 1923ko apirilaren 25ean, Rufina Zelaiarekin ezkondu zen Lekeition. Iñaki, Miren eta Begoñaren aita zen. Boisen hil zen 1970eko azaroan.



Pascual Eiguren eta familia, Jordan Valley-n



Felix Eiguren

²⁰ Jaione Velilla Iriondo, "Palacio de Zubieta", en *Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Documentales* 12 (1994), Eusko Ikaskuntza, 173-208. orr.



Maria Eiguren eta familia

Maria (1888-02-17) Nampan ezkondu zen Mendexako Domingo Eiguren "Kaxpar"-ekin 1908ko abenduaren 23an. Pilar, Luis Domingo eta Joseren ama izan zen. 1916an, Domingok ardiak saldu eta Lekeitiora etorri zen emaztearekin eta lau seme-alabekin.

Ahizpetako beste bi, Ines eta Milagros, *La Lorraine*-n heldu ziren, Le Havretik irten ostean, 1910eko urriaren 15ean. Neba Pascualen erreferentzia eman zuten. Ines Boisen ezkondu zen Blas Telleriarekin 1911ko azaroaren 21ean.

Lehenengo Mundu Gerran, Pablo (1899-01-26) New Yorkera heldu zen *Hudson*-en Bilbotik irten eta gero 1915eko martxoaren 15ean. Pascualengana joan zen hura ere, Jordan Valleyra. 1917an, *F.J. Palmer & Co*-rako egiten zuen lan. 1936ko otsailaren 17an hil zen herri berean.


Eiguren Navarrotarretatik azkena Frank izan zen. 1903 aldera jaio zen Ispasterreko Zubieta baserrian. *La Bourdonaise*-n heldu zen New Yorkera, Le Havretik irten ostean 1921eko apirilaren 14an. Jordan Valleyra joan zen hura ere. Blas Telleria lehengusuaren erreferentzia eman zuen.

Orain arte aipatutakoekin lotura zuen beste bat Jose Eiguren zen. Mendexan jaio zen 1880ko maiatzaren 3an eta New Yorkera heldu zen *La Champagne*-n 1901eko martxoaren 11n, Le Havretik irten ostean. Jose Navarrorengana jo zuen Boiseran. Jordan Valleyn geratu zen bizitzeko. 1918tik 1942ra bitartean, bere konturako abeltzaina zen Jordan Valleyn. Boisen ezkondu zen Carmen Uberuagarekin 1906ko abuztuaren 6an. Carmen urte hartan bertan heldu zen. Maria Urkizaren lehengusina zen, Agustin Azkuenagaren emaztea. Bost seme-alaba izan zituzten.



Frank Eiguren

Julian Arriaga ere Mendexan jaio zen 1868ko otsailaren 16an. Otsaragilea zen eta Lekeitioan bizi zen. New Yorkera *New York* itsasontzian heldu zen Cherburgotik irten ostean 1905eko uztailaren 1ean. Boiseran joan zen, han Jose Uberuaga lehengusua bizi zen-eta. 1915ean, baserritarra zen Boisen. Urte horretan nazionalitatea lortzeko tramiteekin hasi zen.



Jordan Valleyko planoia

Jordan Valley & Arropain

Oregoneko Jordan Valley komunitateak izen bereko herrixka eta inguruko lurra hartzen ditu. Boiseren eta Winnemuccaren erdibidean dago. Joseph H. Geiserrek aipatzen duenez, 1940 hamarkadaren hasieran, "inguru guztiko euskal komunitaterik sendoena da"²¹. Jordan Valley herrixka, 1911tik aurrera hiri bihurtua, "euskaldunen kokalekutzat" hartu izan dute (Geiser, 1944: 13). Geiserrek nabarmentzen du Jordan Valleyko euskaldunek nortasun kultural eta etniko gogorrari eustea lortu zutela urte luzetako isolamendu geografikoagatik, lehenengo belaunaldiak euskara

²¹ Joseph Harold Geiser, *The Basques of the Jordan Valley area. A study in social process and social change*, University of Southern California, 1944, 2. orr.



Euskaldunen elkarrateratzea, Jordan Valley-n, 1914

bakarrrik erabili izanagatik, taldeak bizitzari aurre egiteko gaitasunagatik eta komunitatearen loturagatik, merkataritzarako eta negozioitarako izan ezik “amerikarrak” alde batera uzten zituelako. Familia-egitura sendoak eta taldearekiko harrotasunak euskara erabiltzea indartzen zuen, baita eskola amerikarretan hezitako bigarren belaunaldiko kideen artean ere. Euskaldun askok ez zuten inoiz ingelesik ikasi.

Jordan Valleyk, beste landa-komunitate txiki batzuekin gertatu ez bezala, ez zuen *The National Grange*, *Rotary* moduko giza taldeen garapenik ezagutu, euskaldunen arteko harremanak familia eta komunitate artean sortzen zirelako. Bizitza soziala berezkoa zen, elkarregandik hurre bizi ziren-eta. Arroila edo errekaetoetan bizi ziren euskaldunek ere beti izaten zuten gertu bi edo hiru euskal familia eurokin harremanak izateko. Modu asko zeuden horretarako: karta-jolasa, dantzak eta musika. Gainera, ostatuak elkartzeko leku bihurtzen ziren; ez apopiloentzat bakarrik, baita inguruko euskaldunentzat ere.

1910eko hamarkadaren eta 1940aren hasiera bitartean, Jordan Valley, batez ere, euskaldunen gunea izan zen: inguruan 250-300 euskaldun bizi ziren, herritar guztien bi heren (*The Sunday Oregonian*, 1937-06-20). Christian R.N. Beers-ek nabarmentzen du 1920an negozioirik gehienak euskaldunenak zirela.

Bigarren belaunaldiko euskaldunak zerbitzu-alarrean ziren nagusi: dendak, hotelak eta ostatuak, billartegiak, errementeriak edo familia-arrantxoak. 1940eko hamarkadan, Jordan Valleyko artzainetako % 90 euskaldunak ziren, baita inguruko abeltegien erdien jabeak ere. Sei kideko udal-kontseilua lau euskaldunek eta bestelako bik osatzen zuten. Hiriko alkatea eta diruzaina ere euskaldunak ziren.

Jordan Valleyko lehenengo belaunaldiko euskaldun gehienak Lea ibarretik zetozen: Lekeitio (28), Ispaster (18), Gizaburuaga (5), Mendexa (5), Amoroto (3) edo Aulestia (3). Ondoren, Errigoiti (10), Ibarrangelua (9), Berriatua (6) edo Ereño (5) datoz (*US Federal Census*). Haietako asko bertako kanposantuan daude lurperatuta eta, haiekin batera, seme-alabak eta bilobak.

Bertara heldutako aurreneko euskaldunak Anton Azkuenaga eta Jose Navarro izan ziren, ia bizitza galtzea eragin zien odisearen ondoren.

Agustin Azkuenagak emandako aurrenekoen izenak biltzen ditu Geiserrek bere tesian: Agustin eta Antonio Azkuenaga, Jose Navarro, Pedro Arritola, Luis Iturraspe, Cipriano eta John B. Anakabe eta Juan Urlezaga (Urlizaga). Urlezaga zen Aulestiko ibarretik ez zetorren bakarra, nahiz eta Jordan Valleytik hurbil da goen Jordan Creeken bizi izan. Gainera, Lekeitioko Gloria Bermeosolo Akarregirekin ezkondu zen. Horien ondoren, lagunak, auzokoak


eta senideak etorri ziren, guztiak Jordan Valleyra (*Geiser:24*). 1900eko herriko erroldan, hamahiru euskaldun baino ez dira agertzen: Anton Azkuenaga, John Anakabe, Jose Kaltzakorta, Jose Maruri, Jose Navarro eta emazte Pia, Luis Iturraspe eta emazte Katalina, Dionisio Egurrola, Marcos Renteria, Luis Bermeosolo, John Anacabe. Guztiak zetozen Lekeitiotik eta inguruko herrixketatik, hiru izan ezik (Navarro, Ibarrangelu; Kaltzakorta, Berriatua; eta Renteria, Elantxobe). Urte berean, hurbileko Pleasant Valley, hogei euskaldun bizi ziren Sam Anakaberen eta Agustin Azkuenagaren arrantxoetan bananduta. Horko guztiak ere Lekeitiokoak ziren, Domingo Lekerika izan ezik (*US Federal Census, 1900*). Hamar urte geroago, euskaldunen kopurua hogei bider handiagoa zen.

Mike Hanleyk adierazten du aurreneko euskaldunek kontrako giroa aurkitu zutela hango arrantxo-jabeengandik, euskaldunen ardiek larreei kalte egiten zirelakoan. Egoera aldatu egin zen euskaldunak behizain bihurtu eta aurrenekoen arrantxoak erosi zituztenean, bai 1929ko depresioarengatik, bai aberastu egin zirelako²².

²² Mike Hanley (with Ellis Lucia), *Owyhee Trails. The West's forgotten corner*, Caldwell (1988): The Caxton Printers, 185. orr.

Anthony Iturri abokatuaren arabera, 1940ko hamarkadaren hasieran, berrogeita hamabi familia euskaldun zeuden Jordan Valleyyn:

Jordan Valleyk berrogeita hamabi familia euskaldun ditu: ehun eta hogeita hamabi heldu, hogeita bost institutuan (high school) eta hogeita hamabi bigarren mailako eskolan. (*F.M.McCullough, The Basques in Northwest, 35. orr.*)



Jordan Valley-ko eliza

Ohiturei buruz, Cressmanek eta Iturrik adierazten dutenez, “esate baterako, euskaldunek bere egin dituzte lanerako jantzi amerikarrak, bereziak eta, batez ere, lehenengo belaunaldiko euskaldunek samara lotutako alkandora zuria erabiltzen dute, gorbata barik” (*Cressman & Yturri: 10*).

Jordan Valleyko emigrante euskaldunak ez ziren oso erlijiosoak, batez ere, gizonezkoak. Emakumezkoek (eta umeek) asteko elizkizunean laguntzen zuten eta udako eskola babestu. Eta, gainera, harrizko eliza eraikitzen parte-hartze garrantzitsua izan zuten; gainera, elizaren sendotasuna herriko beste batzuetakoa baino handiagoa zen.

Jordan Valleyn zehar sakabanatuta, euskaldunek hargintzako harriz egindako eraikin batzuk daude. Besteak beste, eliza katolikoa, Azkuenaga etxea deritzona (Bassett Streeten) eta, jakina, frontoia (1915ean eraikia).

1915eko udaberrian, Ambrosio Elorriaga hasi zen frontoia eraikitzen, hargin euskaldunek lagunduta eta bertako harria erabilia. Harriak banan-banan landu zituzten. Lana 1917an amaitu zuten²³



Jordan Valleyko frontoia.



Jordan Valley Advisory Board: Pasko Eiguren, eskuinetik bigarrena (betaurrekoduna)

Christian R.N. Beersek nabarmetzen du euskaldunek Bizkaiko edozein herrixkatakako harreman-moduak zerabiltzatela Jordan Valleyyn. Main Streeten zehar elkartu ziren, 1920ko hamarkadan orduko euskal ostatueta hiruk markatutako marra irudikariaren hegoaldean: Elorriaga, Madariaga eta Markina; esparru hari bertako amerikarrek *Chinatown* zeritzoten mespretxuz (*Beers: 50*).

Jordan Valley Advisory Board: Pasko Eiguren, eskuinetik bigarrena (betaurrekoduna).

Horrez gain, euskaldunak komunitatearen erabaki-guneetan parte hartzen hasi ziren: nahiz udal-kontseiluetan, nahiz larreekin zerikusia zuen guztian, nahiz guraso-elkarteetan.

²³ Mike Hanley, *Opus cit.*, 183. orr.

Zertan jardun zuten

Boisera heldutako gizonezko euskaldun gehienek artzaintzan jardun zuten. Pascual Madozek gogoratzen duenez, egia esan, Bizkaitik zetozen, ardiak hazten ziren leku batetik, baina kopuru txikian eta Argentinako panpetan edo Idahoko mendi eta basamortuetan erabilitako teknika desberdinekin. Lekeitiotik etorritakoak, esate baterako, itsasontzi batetik mendian edo desertuan mila arditik gorako artaldeak zaintzera pasatu ziren. Batzuek,aldi batean, ardiak zaintzeaz gain, meatzaritzan jardun zuten. Beste batzuek eraikuntzan egin zuten lan, hargin, edo zerrategietan eta egur-kanpamenduetan. Geroago, beste arlo batzuetan ere nabarmendu ziren. Jon Bilbao-ren arabera, 1939an, "Boiseko taberna, kaba-ret edo jatetxe gehien-gehienak euskaldunak ziren. Bizartegi eta zapata-denda batzuk ere bai, eta geltokian beti egoten diren taxieta-ko bat ere euskalduna zen. Merkataritza-etxe edo bankuek ere euskaraz berba egiten duten langile euskaldun batzuk dituzte, herrikideak hartzeko. Dena dela, jarduerarik garrantzitsuena artzaintza da oraindik"²⁴.

Artzainak

Esan dugun moduan, Idahora (eta Mendebaldeko beste estatu batzuetara) heldutako eus-

24 Jon Bilbao, "La Historia de los Vascos en el Oeste de Estados Unidos" cit, 10. orr.



Eigurendarren artaldeetako bat.

kaldunak batez ere artzaintzan ari izan ziren; lan horretan ez zuten gehienek eskarmenturik, baina nabarmendu egin ziren. Artzainek bizimodua gehienetan abereen inguruan egiten zuten.

Pat Bieter-ek dioenez, "heldu eta egun batzuetara hasten ziren lanean asko. Atera kontuak zelako sentimenduak izango zituzten gizon haiek, mendietan lehenengoz artalde batekin zeudenean (...) Nevadako eta Idahoko basamortu lehorretan edo mendietan zeuden, sei edo zortzi hilabete, haien esku jarritako

2.500 ardirekin. Hirira joateko aukera izan bai, baina gutxik egiten zuten. Ezin zioten edonoiz edonori berba egin, ezin zuten barrerik egin bertakoekin, zailtasunak zituztelako ingelesarekin. Horregatik, mendietan geratzen ziren, emaztearen edo emaztegaiaren bila joateko edo artalde baten jabe izateko egunaren zain"²⁵.

25 Pat Bieter, "Reluctant Sheperds. The Basques in Idaho", Richard Etulain, Basques of the Pacific Northwest, Pocatello (1991). Idaho State University Press, 21. orr.



Abeltzainak/jabeak

1910erako, aurreneko haiek Idahoko, Nevadako eta Oregoneko artzainetako onenen artean zeuden. Ardi-konpainia garrantzitsuen buru izateaz gain, artaldean eta arrantxoan jabeak ziren. XX. mendeko lehenengo urteetan, Azkuenaga anaiak zeuden goreneko mailan.

Anaia horiek eratu zuten aurreneko lekeitiarrek sortutako lehenengo ardi-konpainia handia. Anton Azkuenaga artzain arrunta izan zen, harik eta bere konturako artaldea bildu zuen arte, bere aberastasunaren jatorria. 1901ean, *Idaho Wool Growers Association* erakundearen Batzorde Eragileko partaidea zen. Urte hartako azaroan, Chicagon ospatzekoa zen Abeltzainen Bilkura Nagusira joan zen ordezkari. Bileran hartan parte hartu zuen euskaldun bakarra izan zen (*Idaho Statesman*, 1901-11-16).

Agustin Azkuenaga Owyheeko euskaldunen arteko abeltzainik garrantzitsuenetzat zuten. Abereak Trout Creek-en zituen. 1903an, 5.000 buruko artaldea zuen (*Owyhee Avalanche*, August, 7, 1903). 1900ean, harrentzat lan egiten zuten Domingo Lekerikak (1885ean herrialdera heldutako beterranoa), Agustin Uberuagak, Simon Akordagoitiak eta Domingo Akarregik (*US Census*, 1900).

Aldi batean, Azkuenagaren ardiek "Nampako hirukiko" larretan jaten zuten (hiru estatuen mugetan), harik eta anaia Antoniorekin batera *Cow Creek Ranch* erosteko beste diru batu arte; lur oneko 3.000 akre zituen, Jordan Valleyn (Oregon) zegoen eta urte guztian 25 gizonak egiten zuten lan bertan (*Silen*: 194).

1909an, *Jordan Valley Livestock & Land Co* enpresaren arduraduna zen Antonio eta bazkide ziren anaia Agustin eta Elma Clark ere. 50.000 dolarreko kapital soziala zuen (*Idaho Statesman*, 1909-07-29). Urtebete geroago, *Azcuenaga Valley Livestock & Land Co* izena hartu zuen (*Idaho Statesman*, 1910-01-18).

1910ean, Idahoko hirugarren konpainia zen eta euskaldunen artean bigarrena (Jose Bengoetxearenaren atzetik)

Gero, 1.809 akreko arrantxoak erosi zuen, behiak eta ardiak hazteko. Artilearen prezioak behera egin zuenean, okelatarako behiekin baino ez zen geratu. Egia da 24.000 buruko artaldea batu zuela. 1920ko udaberrian, desegin egin zen *Azcuenaga Livestock & Land Co*. Boiseko epaitegi baten aurrean (*Idaho Statesman*, 1920-05-23). 1931n arrantxoak



Boiseko 9th Street (Bederratzigarren kalea), XIX. mendearen amaieran.

zein abereak saldu eta Boisea erretiratu zen betiko, etxea bertan zuen-eta.

Azkuenagarekin batera heldutako Jose Navarro, aldi batean "handyman" jardun ondoren, bere konturako artaldea erosi zuen. Gero, hogeitertan Azkuenagaren bazkidea izan zen (Antonek ardiak alde batera utzi eta behiekin hasi arte) eta, ondoren, Fred Palmer-ena: *Palmer Sheep Co* enpresaren % 50 hartu zuen²⁶. Iloba Pasko iristean, familiaren negozioaren ardura hartzen hasi zen. 1917an, bazkidea zen Sheep Ranch-eneta 800 akre zituen Malheur konterrian²⁷. Eiguren Navarrotarrek ere behiak hartu zituzten, ardiak ordez, eta arrantxoak eta lur gehiago erosteari ekin zioten. Bultzadarik handiena Paskoren semeak eman zuen, Fred Eiguren Navarrok.

Ostalariak

Mende batean, euskaldunen erreferentzia nagusia ostatuak ziren (pentsioak, hotelak) Estatu Batuetan; ostalari zuhur batek "etxetik urruneko etxea" zela esan zuen, eta ia egia zen. Lekeitiar askok jardun zuten horretan XIX. mendean heldu zirenetik 1980ko hamarkadara arte. Lehenengoa, beharbada, Iturraspe izango zen Boisen eta azkena, mende bat geroago, Luis Elu, San Frantziskon.

XIX. mendearen amaieran, aurreneko lekeitiarrek lehenengo euskal hotelak (ostatuak) ireki zituzten Boisen eta Idahoko estatu

guztian: *City Restaurant* (herritarrek "Basco Restaurant" zeritzotena, 1893) eta *Oregon Hotel* (1900).

1893an, Gizaburuagako Joe Uberuaga "Arotza"k, Lekeitioko Luis Iturraspe lehenegusuarekin batera, hilabete batzuk lehenago joandakoarekin, *City Restaurant & lodging house* (hotela) erosi zuen; Boiseko bederratzigarren kaleko 116. zenbakian zegoen eta Russ Luark-i erosi zioten. 1894ko urtarrilaren 1etik aurrera ireki zuten (*Idaho Statesman*, 1893-12-31) eta hasiera-hasieratik bihurtu zen eskualdeko euskaldunak batzeko leku. Balio bera zuen mahatordu batek zein ohe batek: 25 zentabo.

1895etik, herriko kartzelan atxilotuta zuden ematen zien janaria (*Idaho Statesman*, 1895-08-06). 1900etik, Uberuaga zen arduradun bakarra (*Boise City Directory*, 1900). Urte hartan, Blas Telleria (1898), Berriatuko Ambrosio Alegria (1898), Jose Uberuaga (1892), Aulestiko Juan Bengoetxea (1892) Jose Odiaga (1898) ostatuak bezeroak ziren (*US Federal Census*, Boise, 1900).

1900ean, Anton Azkuenaga ere ostalaritzan hasi zen eta *Oregon Hotel* erosi zuen beste bazkide birekin batera. Bederatzigarren eta Front kaleen hegalean zegoen. Jeronima Etxeberriaren arabera, "lekua aukeratzea zentuzkoa zen; izan ere, orduan *Oregon Short Line Railroad*-ek kalearen aurre-aurrean uzten zituen bidaiariak, hotelaren aurrean." (*J. Echeverria*: 168)

1909 amaieran, anaia Agustin, Jose Navarro eta Pedro Arritolarekin batera, *Iberia Hotel Company* sortu zuten (*Idaho Daily Statesman*,

²⁶ *History of Idaho: The Gem of the Mountains* (Volume III), Chicago (1920): The S.J. Clarke Publishing Company, 334. orr.).

²⁷ Sol Silen, *Opus cit.* 196. orr.

1909-12-10). 1910 hasieran, konpainiak *Hasbrouk House* erosi zuen, 9th eta Front kaleetan zegoen adreiluzko etxea, eta “euskaldunentzako hotela” ireki zuten (*Idaho Statesman*, 1910-02-10).



Anuntzi Jaio



Petra Urresti

Beste adibide bat Anuntzi Jaiorena (Amias) da. Pedro Antxustegirentzat egin zuen lan Mountain Home-n. Gero, senarrarekin, Boiseen zabaldu zuen ostatua, eta, alargun geratu zenean, urte batzuetan jarraitu zuen negozioarekin. Petra Urrestiren (Uberuaga) adibidea ere antzekoa da. Ostataua izan zuten senar-emazteek Boiseen (Greve Street). 1938 aldera, Main Street-eko 716 1/2an zegoen *Eagle* hoteleko arduraduna zen.

Boiseko “ohiko” beste ostalari bat Agustin Belaustegi zen, Frank Unamunoren koinatua. 1918an, emazte “Patxa”rekin apopilo-etxea (hotela) zuten 117 South 7th Street-en. Gero, *Chico Club*-era pasatu zen Sixth St-en. Boiseen hil zen 1933ko abuztuaren 10ean.

Idahoko estatuan, beste lekeitiar batzuk ere izan ziren hotelen eta pentsioen jabe. Adibidez, Gus Anakabe, beste arrantzale bat, Bellevue-ko *Spanish Hotel*-en jabea, 1917an sute batek hondatua (*Idaho Statesman*, 1917-05-09). Antonio Koskorrotzarena zen *Spanish Boarding House* (hotela) Shoshone-n, (Lincoln konderrria). 1920an, billartegi bat zuen Coloradoko Gran Junction-en (Mesa konderrria). 1930ean, janaridenda bat zuen estatu bereko Silverton-en (San Juan konderrria). Patxi Goitiak, Ana Gabiola emaztearekin batera, euskal ostatua ireki zuen, *The Royal Hotel*, Gooding-en. Geroago, *Owyhee Hotel*, *The Bohemian Brewer* eta beste batzuetan egin zuen lan. Urte askotan jardun zuen BSUko kafetegian (erretiratu arte, 1979an).

Boiseen egonaldia egin ondoren, Agustín Azkuenaga Jordan Valleyra itzuli zen; han,



Jordan Valley Hotel

1915ean, *Jordan Valley Hotel* eraiki zuen, “an imposing structure” (egitura ikusgarria), orduko kronikak ziotenez. Alboan, hornigai-denda zegoen, lagunekin elkartzeko (*Oregonian*, 1971-05-23). Arazo ekonomikoak zirela-eta, *Past Time Pool Hall*-eko arduraduna izan zen eta ostalaritza-arlorra itzuli zen (*Beers*:60). 1940an, Alice Azkuenagak aitari laguntzen zion hotelean. *Eastern Oregon College of Education* graduatuta zegoen (*Flavia M. McCullough*: 35). 1948an, Lucy Aboitiz, urteetan Emmet-en bizi ostean, Oregoneko Burns-era joan zen, *Plaza Hotel* erosi eta gero. Burns-en oraindik komunitate euskaldun garrantzitsua dago. 17 urtetan izan zuen ostatua. Bernardo eta Maite Anduezarri saldu eta Boiseera bueltatu zen 1965ean.

Beste lekeitiar bat, Frank Unamuno, Angela Belaustegi lekeitiarrarekin ezkondua, ostala-

ria izan zen Boiseen eta, 1918tik aurrera, Oregoneko Vale-n.

Kalifornian, Domingo Atxurra *Estrella Hotel*-eko zuzendaria izan zen Stockton-en (Hunter St.), eta arrantxo bat ere bazuen Firebaugh-en.



Oregon Short Line Railroad Station, Boise.



Lucy, hotelean, lisatzen



Luis Elu, Marierekin eta Lucia ahizparekin.

Dena dela, hotel-jaberik ezagunena Luis Elu izan zen; urte askotan San Frantziskoko *Hotel España*-ren jabea izan zen.

Nevadan, Jose Barainkak, 1920tik hil arte, *Silver State Hotel* izan zuen Austin-en. Juan Guridi hotel baten jabea izan zen Mc Dermitten, eta Evaristo Telleria Battle Mountain-en 1910eko hamarkadan.



Petra Belaustegi

Jon Bilbao 1939an Boisera heldu zenean, hiriko klub gehienak euskaldunenak ziren. Boisen, Agustin Belaustegi (eta gero "Patxa" emaztea) *Chico Club*-en jabea zen; Domingo "Sam" Legarza *X Bar*-ena. Estatuan, beste lekeitiar batzuek klubak izan zituzten: John Ereño (*Nampa Bar*), Takolo Txakartegi (*Stockman's Pastime Bar*, *Mountain Home*) edo Julian Plaza (*Bank Club*, *Atlanta*). Nevadako Elko-n, Juan Lenizek *Star Club* ireki zuen; 1942an, *Palace Club*.

Egurketariak

Beste jarduera batzuekin gertatu zen moduan, Idahon egurgintza *gold rush* deritzon egunekin dago lotuta. Egurra behar zen tunelak sendotzeko, kutzak egiteko eta, jakina, etxebizitzak eraikitzeko. Egurtegiatara trena heltzeak aukera eta merkatu berriak ireki zituen²⁸.

Boise inguruan energia hidraulikoz zebiltzan zerrategi industrial batzuk zeuden: garrantzitsuen biak Emmett-en eta Barber-en. Azken honek bat egin zuen lehenengoarekin, eta *Boise Payette Lumber Co* sortu zen. Itxi egin zuten 1935ean, eta bertako langile asko Emmetera eraman zituzten, besteak beste, Patxi Goitia edo Doroteo Foruria lekeitiarrak.

Euskaldun ugarik egin zuten lan arlo honetan, bai egurgile, bai zerrategietako langile, baita batzuk sukaldari ere. Sarritan, lan-mota hori beste batzuekin osatzen zuten, batez ere, hurbilekoekin, esate baterako, zapatagintzarekin. Egia da, dena dela, askok eta askok egurgintzan jardutera bakarrik jo zutela.

Boiseko egunkariak argitaratutako egurgile euskaldunen lehenengo berriak 1906koak dira. Urte hartako urtarrilean, Lekeitioko Victor Barainka hil egin zen, Barber herrian enbor bat gainera jausi zitzaiolako. Beste euskaldun bi, Joe Anakabe eta Pedro Arakistain, zauritu egin ziren (*Idaho Statesman*, 1906-01-24).

Merkatariak, bizarginak, artisauek...

Lekeitioko hiru emakume, Gabina Goitia, Lucy Robles eta María Teresa Robles, zapataginekin ezkondata egon ziren. Lehenengoa, Segurako Frank Agirrerekin; bigarrena, Antonio Lopezekin (Iruñean jaioa eta Portugaleten hazia); hirugarrena, Bilboko Jose Villanuevarekin. Euskaldun askok jardun zuten bizargin Boisen. Aurreneko berriek diotenez, lehenengoa



Lekeitioko Pedro Mendieta izan zen. 1915 eta 1926 bitartean, Capitol Boulevard eta Main Street-en iparraldeko hegalean zegoen negozioa. Lekuz aldatu zuen, Egyptian Theatre eraikitzen zuten bitartean, eta eraikin horren behealdeetan jarri zen 1927tik 1962ra. Mendieta soldadutzan ikasi zuen lanbidea, Espainian. Gero, anaiarekin, bizartegia izan zuen Lekeition, 1914an emigratu arte. *Arrow Rock Dam* enpresan lan egin zuen, baina ukalondoa apurto eta hasierako lanbidera bueltatu zen. Gainera, zer dela kontua eta, 1927an bizartegia izateko baimen-proba gainditu zuen. Bazkideak izan zituen noizbehinka: Abadiñoako Julian Ezenarro (gero, bere kontura ireki zuen bizartegia Kaliforniako Stockton-en), Ed Garro edo Al Berro²⁹. 1962an erretiratu zen. Boisen hil zen 1974ko ekainean.

Jose Atxurak Main Streeteko 712 ½ zenbakian zeukan bizartegia. II. Mundu Gerraren ostean, Segundo Natxiondok eta Balbino Urizarrek (koinatuak, Iriondo ahizpekin ezkonduak) *Latah Barber Shop* izan zuten. Gero, Natxiondo bere kontura hasi zen.

Azkenik, Lekeitioko Pedro Antxustegi "Askartza", urteetan Mountain Home-n bizi izan zena, *Cottage Grocery*-ren jabea zen 1958an.

Itsasgizonak eta arrantzaleak

Emigratu aurretik arrantzaleak izandako oso gutxik jarraitu zuten lanbidearekin mundu berrian. Esate baterako, Zamora Arrizubieta anaiek aldi batean Port Blakely-ko itsasontzietan ibili ziren beste euskaldun batzuekin. Nagusiak, Domingok, artzain egin zuten lan tarte batean Nevadako Elko konderrian, baina eutsi ezin eta itsasora bueltatu zen. Bigarrena, Jose Daniel, "Dan", urte batzuetan itsasoan ibili ondoren, urrea bilatzera joan zen Alaskako Yukon ibaiaren arroara. Hirugarrena,

²⁸ <http://history.idaho.gov/sites/default/files/uploads/reference-series/0173.pdf>.

²⁹ Jai Aldi: 1990, 87. orr.



Arrantzan, Washington estatuko Port Blakely-n

Carlos (“Charles”), arrantzalea izan zen; gero, zerrategi batean egin zuen lan Los Angelesen, harik eta bere kontura Kaliforniako Orange-n baserria eduki arte. Port Blakely-n, Bruno Atxabalek (lehenengo, arrantzan eta, gero, zama-lanetan) eta Zoilo Atxabalek ere egin zuten lan. Kaliforniako Monterey-n, “Tony” Urresti ere ibili zen itsasontzietan. San Frantziskoko US Marine Hospital-en hil zen 1939ko uztailaren 4an, nefritisak jota. Montereyn dago lurperatuta. Ramon Amutxastegi, Boiseen aldi batean bizi ondoren, Seattle-ra joan zen, han itsasoratzeko.

Ignacio San Martinek, 1918 eta 1942 bitartean, izokin-ontzi batean egin zuen lan Alaskako Ketchikan-n. Columbia Britainiarreko New Westminster-en egon ziren Nemesio Zugadi, Enrique Aboitiz, Claudio Andonegi edo Felipe Txakartegi.

Neskameak

Mendebaldera heldu ziren neska lekeitiar gehienek neskame egin zuten lan. Beste herri batzuetakoan aldean, hainbeste izan ziren, ostatu eta hotelen jabeak ere lekeitiarrak zirelako, eta haiek eskatuta joaten ziren. Hiru eta sei urte bitartean jardun behar izaten zuten (batzuetan, gehiago), bidaiaren gastuak ordaintzeko.

Meatzariak

Lekeitiar batzuek meategietan jardun zuten. Gehienek artzaintzarekin uztartzen zuten, nahiz eta zenbaitek horretan bakarrik lan egin. Hona hemen batzuen izenak: Mendazona Marques anaiak eta Ildefonso Garavilla, Montanako kobre-meatze batean; Emilio Barbarias, Jose Atxurra, Segundo Natxiondo, Nevadan; Roman Legarra, Frank Unamuno, Manuel Vazquez, Julian Plaza eta Juan Uriarte, Idahon; John Txakartegi, Santiago Sarria edo Julian Egaña, Utah-n.

Emakumeak

Jon Bilbaok adierazten zuenez, “aurreko mendean (XIX. mendea) gehiago ziren Euskal Herrira itzulitakoak geratutakoak baino. Azken

hirurogei urteetan, ostera, bestela jazo da. Horren arrazoi nagusia emakume euskaldunaren emigrazioa izan da. Dendariak, artzain-jabeak, arrantzeroak familia sortzeko moduan zeuden. Bestalde, ostalariek neskek behar zituzten bezeroei zerbitzua eskaintzeko, batez ere, Gabonetan. Eta neska horiek, Ondarroatik, Lekeitiotik edo Gernikatik etorritakoak, neskame izatetik arrantzero, dendari edo ostalarien emazte bihurtzera pasatzen ziren. Orduantxe hasi zen Nevadan eta Idahon euskaldunen benetako kolonizazioa: senar-emazte berriek arrantzoa egiten zuten eta artzain ez ezik, baserritar ere bihurtu zen artzaina”. Emakume euskaldunen etorrera gehitu egin zen guda hispanoamerikarraren ostean. XX. mendearen lehenengo urteetatik 1922ra arte arin hazi zen euskaldunen kolonia. Valentin Agirre izan zen (ez bakarra) “artzainen hoteletarako neskame euskaldunen bidaiak antolatatu zituen”³⁰.

Lekeition, “potxua” berba erabiltzen da neskei deitzeko, umeentzako “txotxo edo multientzako “txo”ren orde. Normalean, Lekeitioko emakumeak, etxeko lanak egiteaz gain, neskame (familietan eta jatetxeetan), jostun, arrain-saltzaile, saregin, otzaragile, salazioa egiten eta, geroago, kabanetan (jardunaren arlo guztietan) ari izaten ziren; batzuk, oso gutxi, hiribilduaren kanpoaldeko ortuetan.

“Potxuak”, herrikoak izateaz gain (kaletarrak), itsasoari lotutako jardueretan ari ziren, zuzenean edo zeharka. Emakume baserritarren eta arrantzale-girokoen arteko desberdintasunak, batez ere, honakoak ziren: senarra aukeratzeko modua, oinordetza-sistema, ugaltzea edo ezkontzarako ekarpen ekonomikoa. Hain zuzen ere, senarraren (edo familiaren) jardueretan parte hartzeak ausardiarako, adierazkortasunerako, gaitasunerako eta aldaketarako ezaugarriak ematen dizkie³¹.

1895 eta 1924 bitartean, 200 emakume inguruk emigratu zuten Mendebaldera³². Oso gutxi jo zuten “Kalifornian”. Gehienak Boiseen eta inguruetan geratu ziren. Lekei-

tioko neskek adierazkortasunagatik (eta ateraldiengatik) nabarmentzen ziren. Mendebalde amerikarrera, bide bi erabilita heldu ziren, batez ere: ezkontza edo emigrazioa. Heltzen aurrenekoa, noiz eta 1893an, Maria Agustina Urkiza izan zen. Senargiarekin ezkontzeko egin zuen, Agustin Azkuenagarekin. Urte hartako martxoaren 23an ezkondu zen Boiseen; gero, senarraren arrantzora jo zuen, Owyhee konderrira. Idahoko hiriburu bizi izan zen aldi batean, harik eta familia Oregoneko Jordan Valley-n bizitzen geratu arte; han, denda baten eta ostatu baten jabea izan zen.

Boisera aurrenekoak jondako batzuk Lekeitiara etorri ziren neska lekeitiarrekin ezkontzeko. Esate baterako, Victor Gisasola (Josefa Atxabal), Luis Iturraspe (Natalia Akarregi), Jose Navarro (Pia Azpiri), Domingo Odiaga (Paula Fresnedo), Jose Luis Odiaga (Juana Mendazona), John Ereño (Ageda Atxabal), Felix Eiguren (Rufina Zelaia) ... Beste batzuek senarrei lagundu zieten erbestera edo, lehenagotik ezkontzara egonik, beraiekin elkartu ziren. Adibidez, Sabina Azpiri (Emeterio Quintana), Lucy Robles (Antonio Lopez)... Ezkondu barik joan ziren gehienak ostauetan edo ardi-arrantzoetan lan egiten hasi ziren; beste batzuk, neskame, hiriko familietan.

1908ko apirilaren 26an, New Yorkera heldu ziren bederatzita emakume lekeitiar: Pia Azpiri, Paula Fresnedo eta haren alaba Paula eta Maria, Maria Eiguren, Dolores Zabala, Santa Gabika, Julia Mendia eta Gabina Goitia.

Bestalde, kontuan izan behar da, XX. mendearen lehenengo hiru hamarkadetan, Boiseko ostalaririk ezagunenak Lekeition jaioak zirela: Cruza Arostegi, Anuntzi Jaio, Gabina Agirre, Patxa Belaustegi, Petra Urresti, María Mendiola, Rita Beristain eta Dominga Arregi. Oro har, ostalariak neska ezkongabeen bidaien antolatzaile ere bihurtu ziren; haien negozioetan lan egiten zuten zorrak kitatu arte eta, gero, ezkontza adostu. Haietako bat, kasurako, Lucy Garatea (Aboitiz Goitia) izan zen, Gabina Agirrerren iloba; beste bat, Anuntzi Jaio (Amias Alberdi). Beraz, ez da harritzekoa, 1896 eta 1924 bitartean, Boiseen bakarrik, ia 40 neska lekeitiar ezkondu izana. Beste leku batzuetan ere egon ziren ostalari lekeitiarrak: Lucy Garatea, Oregoneko Ontarion; Agustina Urkiza, Oregoneko Jordan Valleyn; eta Eustaquia Zubillaga, Montanako Walkervillen.

30 Jon Bilbao

31 Teresa del Valle (dr), *Mujer vasca, imagen y realidad*, Barcelona (1985): *Anthropos*, 36-37. orr.

32 Lekeitioko Udal Artxibategian, emakume gazteek “Kaliforniara” emigratzeko eskatutako baimenei buruzko agiri ugari daude. Horrez gain, Idahoko estatuko senar-emazteen zerrendetan, ezkonduko lekeitiarren izenak agertzen dira. Idaho, Nevada eta Oregoni buruzkoak ere agertzen dira lan honetan: Iban Bilbao & Chantal de Eguiluz, “Matrimonios vascos en Idaho y Nevada (1862-1941)”, en *Diaspora Vasca*: 4, Vitoria-Gasteiz, 1983.

Bizitza eta heriotza

1905eko uztailaren 22an, Cipriano "Sam" Anakabe hil zuen John "Arenzadel"ek (Aranzabal) Jordan Valleyn. Azken honek bere buruaz beste egin zuen kartzelan eta hilketa egin izana aitortzeko gutuna utzi zuen (*Idaho Statesman*, 1905-09-19). Senarraren heriotzaren ostean, Bibiana Bizkaira itzuli zen, Jordan Valleyn jaiotako hiru seme-alaba txikiekin.

Gripe espainiarra


"Gripe espainiarra" deritzon izurriteak oso eragin handia izan zuen euskaldunen komunitatean. Idahon, lehenengo heriotza Canyon County-koa izan zen, Boiseren iparraldean, 1918ko urriaren 13an. Handik egun batzuetara, lehenengo euskaldunak hil ziren, baita lekeitiar batzuk ere: hilaren 26an, Daniel eta J. Ignacio Dobaran Ezenarro anaiak, eta, 30ean, Pedro Arrillaga (22 urte zituen); azaroaren 26an, Jose Erkiaga Marques; eta 1919ko urtarrilaren 19an, Francisco Azpiri. Guztiak, Boisen.

Bakardadeak eragindako zoramena

Douglassen eta Bilbaoren arabera, "ulertzeko modukoa zen norberaren segurtasuna mantentzeko ardura izatea; baina, beharbada, handiagoa zen buruko osasunarena. Larre zabaletako artzaina, gaur ere, gizarte-isolamenduko girorik latzenetan bizi da, gizarte-psikologoaren esperimentuak alde batera utzita" (*Douglas & Bilbao*: 367): "artzainak eurak ondo baino hobeto jabetzen ziren lanak zekarren zoramen-arriskuaz. Haien elkarriketetan ere, burutik jotako artzaina deskribatzeko euskal hitzak zeuden: "arditua" edo "artemisatua". 1908an, Boiseko euskaldunek osasuna babesteko elkarri laguntzeko elkarte sortu zutenean, garrantzi handia ematen zioten buruko gaixotasunak prebe-



nitzeari, eta Europara itzultzeko bidaiak antolatzen zituzten (*Douglass & Bilbao*: 368). Burua galdu zuenetariko bat Jose Epalza lekeitiarra izan zen. Amerikara heldu zenean, artzain jardun zuen Idahon. 1940an, ospitale psikiatriko batean zegoen Kaliforniako Santa Claran. 1947ko otsailaren 20an hil zen San Joseko ospitalean (Kalifornia). Arrebak hartu zuen gorpuaren ardura. Boisen dago lurperatuta.



Jordan Valleyko frontoia, Oregon

Bizitza komunitarioan

1896ko abenduaren 12an eta 14an, Domingo Odiaga "Txotxo Madalenakua"k eta Jose Uberuaga "Arotza"k amerikar herritartasuna lortzeko "asmo-agerpena" aurkeztu zuten. Odiagak Boiseko epaitegiko Kingsley epailearen aurrean gauzatu zuen, eta 1905eko urriaren 28an eman zioten (*Idaho Daily Statesman*, 1896-12-13). John Archabalek eta *Spanish Joe* Mendiolak 1900eko abenduan eta 1901eko ekainean egitea erabaki zuten, hurrenez hurren. 1905eko irailean, epaitegi berak onartu zion hiritartasuna Jose Luis Odiagari.

Pedro Arritola, 1912an, amerikarra zen eta, emaztearekin batera, Taft presidentearen aldeko batzorde errepublikanoaren partaide izan zen Boisen (*Idaho Daily Statesman*, 1912-03-19).

Aisialdia

Mendebaldeko gune hartan, euskaldunen aisialdiko jarduera nagusiek, batetik, ohiko kirolarekin zuten zerikusia, pilotarekin eta,

bestetik, apustuak egin zitezkeenekin, batez ere, zaldi-lasterketekin; jakina, baita dantzeekin eta pic-nicekin (*pikenikeak*).

Jordan Valleyko frontoia egin arte, pilotaleku gehienak ostatu euskaldunenak ziren. Jose Uberuagak *Star Rooming House* ireki zutenean, frontoia ere bazeukan, Idahoko lehenengoa. Sasoi batean, egunero jokatzen zituzten partidak.

Pedro Antxustegi "Askartza" lekeitiarrak urte batzuk eman zituen artzain-lanetan, baina gero ostalari eta abeltzain (ardiak) jardun zuen. Hasieran, Mountain Home-n (*Spanish Boarding House*); gero, Boisen. 1958an, *Cottage Grocery* zeukan, janari-denda bat. Mountain Homen, frontoia eraiki zuen, orain monumentu izendatua. Antxustegi kirol horren zale amorratua zen; gainera, berak egiten zituen pilotak ere. Aditua zen horretan: Lekeition ikasi zuen josten.

"Askartza" gizon azkarra zen. 1945ean, Artzain Euskaldunen Dantzaldiaren arduraduna izatea egokitu zitzaion Mountain Homen. Unerik garrantzitsuenean, agintariak agertu ziren eta estatuko lege bat erakutsi zieten, igandean dantzaldi publikoak debekatzen zuena. Askartzak agindua bete zuen eta atean jarri zen parte-hartzaileak banan-banan kanporatzeko, baina jaialdi pribatua ospatzeko berriro sartzera gonbidatu zituen. Salatzailen protesten aurrean, Poliziak onetsi egin zuen ospakizuna, eta 1945eko urtarrileko Artzainen Dantzaldia arazorik gabe egin zuten (*Associated Press*, 1945-01-04).



Frontoia

Circumvents Law to Continue Ball

(The Associated Press)

Mountain Home, Ida., Jan. 3.—The Basque sheepherder's ball was in full swing when a night marshal apologetically pointed to Idaho's Sunday anti-dancing blue law and requested a halt.

So Pedro Anchustegui, chairman, stopped the festivities and dismissed the dancers but—

As each dancer left Anchustegui extended his personal invitation to re-enter the hall, thus making it a private instead of a public party.

The marshal said that was perfectly O. K. and the party proceeded.

Lekeitiarrak nabarmendu egiten ziren Boisen. Henry Alegríaren arabera, "noisy bunch" (kuadrilla zaratatsua) ziren. Herrikideen ostatuetan elkartzen ziren kartetan jokatzeko (seguruenik, musean, diru-apusturik egiten ez zelako; edariak eta afaría bakarririk) eta ospakizun bitxiak antolatzen zituzten, adibidez, "sorginen afaría": katua prestatzen zuten³³.

Emakumeen Aurrekua. Sheepherders' Ball, 1938: argazkian agertzen diren lau emakumeetatik hiru Lekeitiokoak ziren.

Jon Bilbaok aipatzen du Gabon inguruan urtero ospatzen zen Artzainen Dantzaldian, lehenengo ekitaldia, aurrekua, Lekeitioko emakumeek egiten zutela.

1940an, Lucy Aboitzek, Cipri Barroetaña eta Julia Lizundia senar-emazteekin

batera (aspaldiko lagunak ziren), Jon Bilbaok (Eusko Jaurilaritzaren ordezkariordea Idahon), eta Jose Villanuevak eta haren emazte Maria Teresa Lópezek (lekeitiarra hau ere) Idahoko euskal dantzen lehenengo elkarte sortzen lagundu zuten Emmett-en. Taldean Lucyren seme-alaba bi sartu ziren. Lekeitioko batzokiko ehunlarien partaidea izandakoa zen Lucy eta ondo egiten zuen dantzan: ahal zuen guztietan erakusten zuen trebetasuna. 1922ko otsailean, Lucy eta haren lagun Felisa Gametxok, Munitibarreko eta Lekeitioko María Uberuagak Boiseko *Americanization School* erakundeak antolatutako ekitaldian parte hartu zuten. Jota eta porrusalda dantzatu zituzten, Julian Ezenarrok (gitarrarekin) eta Lizundia "andreak" lagunduta (*Idaho Statesman*, 1922-02-19).

³³ Henry Alegria, Opus cit, 36. orr.





These people will play and dance at the Basque Sheepherders' ball, December 22. The women will dance the Aurreku to the music of chistu and tamboril, played by Ambrosio Apariasi (left) and Joe Anacabe. The dancers are, left to right, Mrs. Antonia Subisarretta, Mrs. Juana Odiaga, Mrs. Carmen Luque and Mrs. Eladia Goicoechea.

Argazkia *Idaho Statesman* egunkariak argitaratu zuen 1950ean, eta urtero Boisen ospatzen den Music Week-i dagokio. Hantxe zeuden "Takolo" Txakartegi (lekeitiarra), David Laxiondo, Fermina Garmendia (lekeitiarra), Angela Bikandi, Elena Barinaga, Isidora Mada-rieta, Boni Garmendia (zuzendaria), Anuntzi Jaio (lekeitiarra), Petra Urresti (lekeitiarra), Joe Anakabe, Angela Anakabe, Anton Uranga, Gloria Urlezaga (lekeitiarra), Balbina Izagirre, John Iribar eta Jose Antxustegui (lekeitiarra) (*Idaho Statesman*, 1950-05-07).

"Takolo" Txakartegi.

Hainbat urtetan, Lekeitioko arrantzale bat, Juan Txakartegi Lamadriz "Takolo", izan zen Idahoko euskaldunen erreferentzietako bat. Berbalari ona, umore handikoa, dantzaria... 1950eko maiatzaren 18an, pregoilaria izan zen Boise Music Week ekitaldian. 1962an, Domingo izan zen Walt Disneyren pelikula batean: *"Greta and the Misfit Greyhound"*. 1985eko maiatzaren 11n, María Uberuagarekin egin zuen dantzan *Nondik nora: Basques in América* ikuskizunean, *Oinkari Dancers* taldearen 25. urteurrenean.



Itzulitakoak

*Cuidando las ovekas
Norte Ameriketan
Hize catorze años
Ta ekarri andikan
Zer???*
*Un millón de dólares
Daukat oraindikan,
Armario zar baten
Ondo gorderikan*

William Douglasssek dioenez, "euskal baserri-tarren komunitatean, beti egon izan dira itzulitako emigranteak, erretiroaren azken urteak jatorrizko baserrian bizi izan dituztenak. Oro har, ondo hartuak izaten dira, neurri batean, hiltzen direnean herentzia egongo delako, baina, egia esan, desberdinu egiten dituzte betiko herritarrengandik. Mendebalde amerikarrearnean urteak emandakoei *amerikanuek* deitzen diete. Herri berean, *venezolanuek* edo *australianuek* ere egon daitezke, eta bertakoek baztertutzat hartzen dituzte. Itzulitako beste emigrante batzuekin harremanak izateko joera dute"³⁴.

³⁴ William A. Douglass, *Cultura vasca y su diáspora. Ensayos teóricos y descriptivos*, Donostia (1991): Baroja, 65. orr.



Flora Bengoetxea eta Miren Urizar, Idahon jaiok, Lekeitioko lorategian.

Baina egile berak nabarmentzen duenez, "... itzulitako emigrante guztiak ez dira jatorrizko komunitatean bizitzen geratzen. Ingu-

ruko herriguneetara jotzen dute, emigrazioan irabazitako kapitala eta aurrezkiak erabilia negozio txikiak sortzeko. Nahiz eta jatorrizko herrixkarekin eta biztanleekin loturak izan, gonbidatutzat hartzen dituzte baserriko senideei egindako bisitaldietan. Ospakizunetarako itzultzen dira herrixkara, adibidez, bataio, hileta, ezkontza eta urteko jaietarako, baina izatez ez dira bertako kideak"³⁵.

XX. mendeko lehenengo urteetan, Mendebaldean aberastutako "amerikanoak" hasi ziren etortzen. Hasiera hartan, itzulitakoen kopurua ez zen heltzen % 30era. Egia da batzuek dirua egin zutela eta horren bidez etxeak eraiki, alokairuan bizi izandako senideen baserria erosi eta negozio txikiak sortu zituztela. Baziren familia eratu eta Estatu Batuetara itzulitakoak ere, bai artaldeekin jarraitzeko, bai inoren menpe lan egiteko. Itzulitakoen lorratzak nabariak dira Lekeition eta Arropainen.

1906rako, lehenengo "amerikanuak" Lekeition geratu ziren bizitzen. Urte hartan, Bedaronako Meliton Bengoetxeak Flora emaztea eta hiru seme-alabak Bizkaira eramane zituen. Beste artzain batekin, Lekeitioko Luis Iturraspe Uberuagarekin, etxe bat eraiki zuen Arropainen, Ispasterreko Kurtziaga auzoan,

³⁵ Ibidem, 65-66. orr.



Natxiondoren cafea. Arg. Mikel San Sebastian.



Anastasio Urizarren etxea eta denda.



Flora Alzolak egindako etxea
Arg. Maite Saavedra Ordorika

baina Lekeitioko erdigunetik kilometro batera. Gero, Elmore-ko konderrira itzuli zen, abeltzaintza-jarduerarekin jarraitzeko, Jose (abeltzain ospetsua) eta Gabriel anaiekin batera.

Hurrengo urteetan, euskaldun-amerikar gehiago iritsi ziren: Eiguren (hainbat adarretakoak), Onaindia, Natxiondo, Odiaga, Urizar, Uberuaga, Elu... Etxe berriak egin edo zaharrak berreraiki zituzten, gehienak “txaputxeroen” auzoan. Artzain zaharrak jarduera berrietan hasi ziren: dendari, tabernari, etxegile, kamioilari, altzarigile, zapatagin...

“Amerikano” haiek (gehienbat, iritsi berriak) ez zituzten “benetako lekeitiar”tzat hartzen, batez ere, arrantzaleek, baina “txaputxeroek” ere ez. Bedaronakoak ziren (Urizar, Bengoetxea, Iribar, Korta), Ispasterrekoak (Natxiondo, Egaña), Mendexakoak (Eiguren), Amorotokoak (Onaindia, Urrutia)... Euskara bera ere desberdina zen eta baserriar jatorrikoak ziren.

Behin hona helduta, ohar batzuk. Lekeition jaio ez eta itzulitako gehienak Lekeitioko Santa Maria parrokiatik banatutako bostetatik datoz: Ispaster, Amoroto, Gizaburuaga, Mendexa eta Bedarona³⁶. Gainera, elizate horietakoek ospitalean hartuak izateko eskubidea zuten, lekeitiarren baldintza berbereta³⁷. Munitibar (Arbatzegi eta Gerrikaitz) eta Aulestikoek Gernikan, Markinan edo Eibarren geratzea erabaki zuten³⁸.

Hogeita hamar familia *amerikano* inguru bizi ziren, batez ere, Dendarin, Behekokalean, Tortolan, Gerrikabeitian eta plaza txiki bitan: Gamarra eta Eskolapea. Haien etxeak arrantzaleenak baino handiagoak ziren. Negozioak ere bazituzten: Ispasterreko Manuel Natxiondo artzaina izan zen Utah-n eta Nevadan eta oso taberna ezagunaren jabea izan zen hemen. Gizaburuagako Prudentzi Urizar Idahoko Mountain Home-n bizi izan zen eta hantxe jaio ziren lau seme-alabetako hiru (azkena, Aurele, Lekeition jaio zen): denda bat zuen, Natxiondotarrendandik hurbil. Donato Uberuagak, Anton Azkuenagaren koinatuak, etxea egin zuen Behekoka-

leko 10ean. Lanak Castor Uriarte arkitektoari agindu zizkion.

Lekeitiar batzuek ere batu zuten negozioak irekitzeko beste diru (haietako batzuek oraintxe arte iraun dute): Barbariastarrek, Behekokalean, arotzeria; Escribanok, zapata-denda (oraingo “Ona”; dendak Lekeition eta Gernikan dituzte).



Luis Escribano Andonegi

Egia da “amerikano” haietako batzuek diru guztiak galdu zituztela, XX. mendearen hasieran euskaldunek sortutako *Crédito de la Unión Minera* banku garrantzitsunetakoak porrot egin zuenean; esate baterako, Domingo Eiguren “Kaspar”en familia. Haien seme Josek eskola utzi eta Eigurendarren ontziolan hasi behar izan zuen lanean (aitaren senideak ziren). Gero, bera ere Estatu Batuetara joan zen.

Lorenzo “Begizuria” ere Lekeitiora bueltatu zen, han sei urte eman eta gero. Mercedes emaztegiarekin ezkondu nahi zuen eta Ameriketara itzuli harekin. Ezkondu egin ziren, baina ez ziren joan. Emaztearen familiako itsasontzian lan egin zuen; *Santa Elena*-ko patroia izan zen erretiratu arte. Algecirasen hil zen 1983ko irailean; hantxe bizi zen alabaren sendiarekin, alabak lan-kontuengatik bertara joan behar izan zuen-eta. Gorpua Gezuragarren panteoian dago, haren emaztearenean, Lekeition. Berarekin joandako Leandro Ruizek, itzulitakoan, itsasoko lanari ekin zion eta “talaiero” bihurtu. Beste Izagirre anaia biak arrantzan hasi ziren, eta Marcelino Kofradiako presidentea izan zen. Beste arrantzale-artzain batzuek, ez guztiak, merkataritza-nabigazioan jardun zuten, behin Ameriketako egonaldia egin eta gero, esate baterako, Zakari Zarragoitiak.

Astean gutxienez behin eta berrogeita hamar urte baino gehiagotan, emakume “amerikano” batzuk briskan jokatzeko elkartzan ziren (“txakur txikira”), baita Mendebaldean bizi

izandako une zaharrak gogoratzeko ere: Flora, Maria, Maximina, Prudentzi... Horren harira, Idahon Meliton Bengoetxea hil zenean, alargunak, Flora Alzolak, Arropaineko etxea eta Mountain Homeko arrantxoak saldu zituen, Lekeition etxe berria egiteko, Tortola kaleko 2. zenbakian (orain hirugarrena); hain zuzen ere, ilobak jaio ziren “auzo amerikarrear”.

Itzulitako itzulera

Itzulitako seme-alaba asko Amerikan jaioak ziren. Mutilek erabaki handia hartu behar zuten: Lekeition geratu eta Espainiako Gudarostean parte hartu (batzuek Marokoko gerran) edo, adin nagusira helduta, nazionalitatea aukeratu. Bestalde, itzulitako gehienak krisi ekonomikoaren sasoian etorri ziren eta Estatu Batuetara itzultzea erabaki zuten (haietako inork ez zuen hogeitaz urterik eginda). Esate baterako, Luis Bengoetxea (Boisen jaioa), Jose Domingo Odiaga (Owyhee konderriko Bruneau-n jaioa), Segundo Natxiondo (Nevadako Jiggs-en jaioa), Balbino Urizar (Mountain Home-n jaioa), Jose Eiguren “Kaspar” (Oregoneko Jordan Valley-n jaioa) edo Luis Elu (Oregoneko White Pine-n jaioa)³⁹. Nahiz eta gehienak mutilak izan, emakumerik ere bazen. Jakina, ez zuten soldadutzaren arazorik. Adibidez, Francisca Garavilla. Boisen jaio zen 1915eko abenduaren 4an. Lau urterekin, aita hil ostean, Lekeitiora itzuli zen amarekin, Ispasterreko Pilar Arritolarekin: Gasteizko ikastetxe batean egon zen barneko ikasle. Gero, tarte batean, senide batzuen kabanen lan egin zuen. Guda zibila Lekeition bizi izan zuen eta 1955ean Boiserara joan zen. Handik gutxira, Manuel Vazquez ezagutu eta berarekin ezkondu zen 1956an.



Joe Eiguren.

³⁶ Ikus Vicente de Urquiza, *Iglesia Parroquial de Santa María de Lequeitio*, Bilbao (1985): Caja de Ahorros Vizcaína, 80. orr. eta hurrengoak.

³⁷ Francisco de Ocamica, *Opus cit.* 258. orr.

³⁸ Ikus William A. Douglass, *Death in Murelaga*, Seattle (1969): University of Washington Press, 3-4. orr. Baita W.A.D., *Echalar and Murelaga. Opportunity and rural exodus in two Spanish Basque Vilages*, London (1975). C. Hurst and Co.

³⁹ Joseph Eiguren, *Kashpar. The Saga of the Basque Immigrants to North America*. Caxton (1998)

Itzulitako seme-alaben itzulera ere gertatu zen. Bedaronako Blas Iribarrrek 1902an emigratu zuen Nevadara. Han urte batzuk emanda, Lekeition geratu zen bizitzen (Dendari, 29). Juana Azpirirekin ezkondu eta seme-alabak Lekeition jaio ziren. Bien bitartean, Nevadan Pedro Olabarria bazkidearekin batera zituen negozioei eutsi zien. Hirutan joan zen gutxienez Amerikara, 1931n, 1935ean eta 1940an.



Tony Bronko

Antonio Onaindia, "Bronko", Amoretoko *Goi-tibekua* baserrian jaio zen 1876ko abuztuaren 7an. 1896an Estatu Batuetara emigratu zuen eta Idahon zein Nevadan egin zuen lan artzain eta abeltzain. 50 urteak beteta zegoen; horietatik hogeita hamar Mendebaldean. Gizaburuagako *Albinakorta* baserriko Carmen Malaxetxebarria Garramiola ezkondu zegoen eta 1923an jaio zen seme-alabetako nagusia, Benito. Aurreztutako diruekin, itzultzea erabaki zuen, eta etxe bat egin zuen Behekokalean.

Aurrezkiak urritzen ari ziren ("asko jaten zuen") eta lan bila hasi zen, baina peoirakoak bakarrik eskaintzen zizkieten. "Mungia" delako bati buruz hitz egin zioten (seguruenik Aniceto Mentxaka izango zen); Australiara joateko jende bila zebilen, azukre-kainabera mozteko. Baina, hark gazteak nahi zituen, eta Antonio berrogeita hamar urtetik gorakoa zen. Ardurduna gizon garaia eta sendoa izanik, Antoniok borrokan egitea proposatu zion, edozein gazte baino hobeto moldatzen zela erakusteko. Hiru tximiniako itsasontzi ingeles batean irten zen Australiara, 1930ean. Sei hilabeterako kontratuarekin joan zen, baina beste hainbeste egin zituen. Azukre beltza ematen zuen kainabera mozten zuten, Bardinet enpresari saltzeko ("Negrita" rona). Hiru libera ordaintzen zizkieten eguneko, oso soldata handia ordurako. Australian hiru urte egon zen, txanda bitan. Lekeition hil zen 1954an, 78 urte zituela.



Traditional Basque dress and a sheepherder's wagon recall the immigrants once attracted by Idaho's sheep industry. Photography: Steve Bly